

## Herririk Herri | 6

Liburutegi berriko obrak irailean hasi gura ditu Mañariko Udalak



## Berbaz | 10

Gabina Agirre: "Ekuatore Ginean Hezkuntza gabezia handiak dauzkate"

## Jaiak | Gehigarria Izurtzako jaiak



### DURANGO | 3

# Trena lur azpitik abenduan joango dela baieztatu dute

2009tik durangarrak itxaroten ari diren trenaren lurperatzea azken txanpan sartu da, obraren arduradunen berbetan: geltokiko lanen %90 eginda dago eta urte bukaerarako trena lur azpitik joango da.



### DURANGO | 2

**Txosnak Kurutziaga**  
kalean ipintzea adostu  
dute txosna batzordeak  
eta Durangoko Udalak

San Fausto jaietako aurtengo nobedadeetako bat txosnen kokapena izango da. Zumar kalean egoteari ezetz esan eta gero, txosnek udalari hainbat leku proposatu dizkiote. Azkenean, Kurutziagan ipintzeko erabakia hartu dute. Lau karpa eta bost txosna jarriko dituzte. Euskalgintzaren karpa berriak AEK, Berbaro Taldea, EHE eta Ibaizabal Ikastola batuko ditu.



www.elorrioinez.com

Elorrio  
Oinez  
EO!

## Zenbat gauza aurkituko dituzun!

Gidatutako ibilaldiak, Elorrioko arte  
eta kultura ondarea ezagutuz goatzeko

## Elorrio | 5

Auzo taxi zerbitzuaren erabiltzaile kopurua hileroko igo da otsailetik

## Abadiño | 3

Estankoa dagoen etxearen zati bat bota egin du udalak

## Berriz | 8

Auzoetan Wifi antenak eta oinarritzko konexioa ipiniko dute

## Atxondo | 6

Udalak bere gain hartu du Kilometro Bertikala antolatzea



## HERRIRIK HERRI &gt;

f Anboto Komunikabideak  
@anboto

DURANGO

## Kurutziaga kalean jarriko dute aurten txosnagunea

Kokaleku berrian lau karpa eta bost txosna jartzea adostu dute udalagaz



Txosnak jartzeko aukeratu duten kokagunea: Kurutziaga kalea.

Gerra Zibilean sufritutako bonbardaketen biktima zibilen ordezkari legez, Bizkaitar Argia izendapena jaso du Durangok, Gernika-Lumogaz batera. Bizkaiko Foru Aldundiak 1990etik ematen duen saria da. "Biktima zibilak, haurrak, gizonak eta emakumeak, guztiak errugabeak, aintzateste eta omentzeko lanagatik" eman die saria bi herriei.

Uztailaren 25eko ekitaldian egon zen Aitziber Irigoras alkatea, bonbardaketatik bizirik irtendako lekuko batzuekin batera. Aitor-tza eskertu zuen Irigoras: "Mina oraindik ere bizirik dago gure etxeetan eta gure herrian, eta oroitzen honek egia, memoria eta erantzukizuna oinarri dituen etorkizuna eraikitze balio izatea espero dugu". ■ A.B. / M.O.

## Bizkaitar Argia izendapena jaso du Durangoko Udalak

Bonbardaketa dela-eta eman dio saria Aldundiak



Saritua uztailako ekitaldian; tartean, Aitziber Irigoras alkatea.

**T**xosna batzordea osatzen duten hamasei elkarteek Kurutziaga kalean ipiniko dute aurten txosnagunea. Udalak proposatutako errotazio sistemak Pinondo eta Zumar kalea aurreikusi ditu orain arte, baina txosnek ezezko borobila eman diote bigarren kokapen horri, jaigunetik urrun dagoela argudiatuta. Aitor Beobide txosna batzordeko kideak azaldu duenez, "Zumarkalera joango ez ginela ikusirik udalagaz beste leku batzuk aztertzen hasi ginen iaz". Besteak beste, Kurutziaga proposatu zuten txosnek eta udalaren baiezkua jaso zuten.

**Azken batzarrean elkarteek aurkeztutako proiektuari baiezkua eman dio Durangoko Udalak**

Hasieran, kokapen berrian zazpi txosna jartzeko proposamena aurkeztu zuen udalak. Txosna batzordeak berriz, teknikari baten laguntzagaz Jaurlearitzak ezarritako legeak kontuan hartuta beste proposamen bat egin du: lau karpa eta bost txosna ipintzea. Udalagaz edukitako azken batzarrean

elkarteek aurkeztutako proiektuari baiezkua eman dio udalak.

**Euskalgintzaren karpa**

Txosnaguneko nobedadeetako bat euskalgintzaren karpa izango da. Durangon euskalgintzan diharduten lau elkarteek gune berria estreinatuko dute aurten. Ibaizabal Ikastola, Euskal Herrian Euskaraz, Berbaro Taldea eta AEK batuko dira karpapean.

Gai teknikoak gaindituta, txosna batzordeko programazio arduradunak jai egitaraua osatzen ari dira burubelarri. San Fausto Egunaren aurten zapatua denez, egun horretako ekitaldiak jendetsuak izatea gura dute. Aitor Beobidek egun horretako bi ekitaldi azpimarratu ditu: "Ekintza parte-hartzaileei garrantzia eman gura dieguenez, urriaren 13an paella lehiaketan eta erreka jaitsieran jendetza batzea itxaroten dugu". ■ J. G.

**AEK, Berbaro Taldea, Euskal Herrian Euskaraz eta Ibaizabal Ikastola batuko dira Euskalgintzaren karpapean**

## Ezinduentzako komun berria atletismo pistan

Irisgarritasun arauak bete eta sabaia, fatxada eta instalazio elektrikoa konponduko dituzte

Durangaldeko Amankomunazgoak hainbat obra egingo ditu irailean Landakoko atletismo pistan. Horieta asko irisgarritasunagaz lotutakoak izango dira, aurreratu dutenez. Esaterako, ezinduentzako komun berria egokituko dute. Prozesu oso baten bigarren fasea izango da, gogoratu dutenez. Lehenengoa duela gutxi amaitu dute: pertika jauzarako koltxoia eta jaurtiketarako kaiola berriak ipini dituzte.

Fase biak kontuan hartuta, ia 300.000 euro inbertituko ditu Amankomunazgoak. Irisgarritasunagaz lotutako araudia betetzeko obra hasiko dute. Gainera, eraikinaren sabaia, fatxada eta instalazio elektrikoa ere konponduko dituzte. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek azaldu du helburua ez dela bakarrik mantenimendua hobetzea: "Prestazioak handitzea ere gura dugu". ■ M. O.

katerin ardoak  
iñaki uribe

**saltsan**

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

**GAER DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:  
LABEZOMORROAK, IÑURRIAK, JANTZISIZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Otxandiko saskibaloi taldeko gazteak txupinazoa botatzen.

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

**A CENTRAL FORESTAL**

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA Tf.: 946 205 187 Faxa: 946 205 194



Joan zen astelehenean prentsarentzako zabaldu zuten geltokia.



## Tren geltoki berria, urtea amaitu aurretik zabalik

Estazioko lanen %90 amaituta dago, obrako arduradunek azaldu dutenez

**A**bendurako prest egongo da Durangoko tren geltoki berria. Horrela azaldu zuten obrako arduradunek astelehen goizean, geltokian bertan, prentsarentzako egindako bisitan. Estazioko lanen %90 amaituta dagoela esan zuen Jose Mari Gutierrez obrako zuzendariak. Azken faseko instalazioak falta dira, eta lan horretan dabilta beharginak: eskailerak, argiztapena, aireztatzea... Geltoki berriaren inaugurazioa hurretik ikus daiteke.

Zaha Hadid arkitektuaren diseinua errespetatu dute, Gutierrezen arabera. Geltoki berriak

sarrera bi edukiko ditu, iparraldean eta hegoaldean, baina egungo geltokia bota bitartean iparraldekoa ezingo da erabili. Galeria komertziala eta aparkalekua

**Azken faseko instalazioak falta dira, eta lan horretan dabilta beharginak**

eraikiko dituzte barruan, eta esleipena aste honetan eman dute.

2005ean hasi ziren trenbidea lurperatzeko beharrak, eta 2009rako aurreikusitako amaie-

ra. *Durango operazioa* izendatu zuten egitasmoa. Urtez urte atzeratzen joan da, eta herritarren ezinegonak gora egin du. Lurperatzeak eskaera sozial handiari erantzuten dio. Geltoki berria funtzionatzen hastean, aldaketa nabarmen igarriko da. Sei pasaguneak desagartzeak trafikoa arinduko du. Oinezkoen itxaronaldiak ere amaituko dira. Bestalde, istripuengatik kezka eragin izan du trenak—urtarrilean emakume bat hil zen trenak harrapatuta—. Segurtasun arazoak ere jazo dira tarteka; hesiak jaitsi barik tren pasatzea, adibidez. ■ M. Onaindia

## Gaineko lursailean gertatuko dena, airean

Trena lurpetik joanda asko aldatuko da Durango. Edozelan ere, arkitektonikoki, erdibituta jarraituko du momentuz. Lurperatzearen ondorioz gainazaleko trenbide zaharra kendu eta lurra urbanizatu beharko litzateke. Eta ez dago obra horretarako datarik. Gainera, Jaurilaritzak eta udalakika-mikak eduki dituzte eskumena dela eta. Krisiak asko baldintzatu dezake: geltoki eta garaje berriak amaitzeak egungoak botatzea suposatzen du, baina obra adjudikatu barik dago. Ezkurdin geratuko litzatekeen zabalguen etxe-dorreak eta ETSren

egoitza nagusia eraikitzea diseinatu zuten; baina azken hori alboratu egin dute.

### Lurperatzea, amaitzeko

Trenbidearen lurperatzea ez dago guztiz amaituta. Gutierrezek adierazi zuen Euba-lurretartea eta Traña-Matienako zabalpena egiten dabiltzala oraindik. Lebarioko garajeen kasua ere berbera da. Denera, ekainerako amaitzea itxaroten dute. Proiektuak 220 milioi euroko kostua izan du momentuz, eta 2012-2013 tarteko lanetarako 40 milioi eurotik gora ipini ditu Jaurilaritzak. ■ M. O.

### ABADIÑO

## Estankoaren eraikinaren zati bat bota egin dute

Udalak agindu du eraisketa, egoera txarragatik; urte hasieran jabeari obrak egiteko eskatu zioten

Udal arkitektuaren azkenengo txostenaren arabera, Zelaietako estankoa dagoen eraikinaren parte bat jausteko zorian zegoen, eta beraz udalak zati hori eraistea erabaki du. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, “arriku handia zegoen”, eta segurtasunagatik era-

baki dute eraikinaren zati bat botatzea. Eguazten goizean bota zuten.

Eraikina egoera txarrean zegoenez, urte hasieran agindu zion udalak jabeari obrak egiteko. Etxe azpitik pasatzen diren segurtasunerako neurriak hartzeko eskatu zion udalak. ■ I.E.



Eguaztenean bota zuten jausteko zorian zegoen zatia.

## Matienako osasun etxeak 144 metro koadro gehiago

Osasun zentroak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko helburuagaz, Traña-Matienako anbulategia berrantolatu eta handitzen ari dira: 144 metro koadro gehiago atonduko dituzte.

Tamaina horretako udal-lokal bat gehituko diote gauregun

961 metro koadro dauzkan osasun zentroari. Emaginaren kontsulta eta erditze lanetarako gimnasioaz aparte, gainerako asistentziarako gela guztiak ere zentroaren aurreko alderalekualdatuko dituzte.

Gobernu taldeak ohar batean azaldu duenez, bost hilabete iraungo dute lanek, eta 198.865 euroko inbertsioa beharko da.

Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, obra eta espazio berriek “osasun etxearen barruko antolaketa eta zerbitzuaren kalitatea hobetuko dute”. ■ A.B/I.E.

## Lebariorako sarrera obretan, lurrak okupatzea erraztu du udalak

Lebario industrialdeko sarbideak hobetu eta aparkalekuak berrantolatzeko proiektuan, bidea erraztu dio Abadiñoko Udalak Eusko Trenbide Sareak enpresari. Lanetarako behar diren lursailetan, derrigorrezko okupazioa bideratu du dagoeneko udalak. Jose Luis

Navarro alkateak adierazi duenez, “espropiaziorako tramiteei ekiteak lanak atzeratzea eragingo luke”, eta hori saihesteko erabaki du udalak derrigorrezko okupazioa egitea.

Abadiñoko Lebario auzoan kotxetegiak atontzeko obrak burutzen ari da Euskotren. Arduradunek azaldu dutenez, lan horiek errepidearen zati bati eragin ondoren sortu da ingurua berrantolatzeko beharra: industrialdeko sarrerak eta aparkalekuak antolatzeko. ■ A.B/I.E.

### GARAI

## Frontoiko obrak dirauen artean, dutxak ezingo dira erabili

Irailean hasiko dituzte Garaiko frontoiko obrak. Aldagelak eraberrituko dituzte, eta horrek frontoiko zerbitzuan eragingo du. Kantxako funtzionamenduak berdin jarraituko du, baina ezingo da dutxarik erabili. Gontzal Sarrigoitia alkateak eman ditu argibideak. Frontoia alokatuta daukatenean ere egon dira berbetan arduradunak.

**Hilabete bi iraungo dute lanek; irisgarritasuna hobetzea da helburua**

Hilabete bi iraungo dute lanek. Irisgarritasuna—ezinduentzako sarrerak—hobetzea da helburua. Aldagelak aspaldikoak dira, eta konponketa batzuegiteko ere aprobetxatuko dute. 106.700 euroko aurrekontua daukate, eta diru laguntzekin %95 kubrituko dute. ■ M. O.



# Gremioen gida

## ELEKTRONIKA

**URBASA** ELEKTRONIKA  
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA  
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango  
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80  
urbasa@urbasatel.com  
www.urbasatel.com

**Panasonic**

Telebista  
Instalazioak  
Ongarria

## AROTZERIA

**EGUIA S.L.**  
AROTZERIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46  
Faxa: 94 605 69 06  
Mug.: 669 655 169  
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.  
- Pintura eta pintura apaingarria.  
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz  
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21  
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com

## GARBIKETAK

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfombra  
Goietak, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

## ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

**PUJANA**  
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, beheak - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

## ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO  
Tel.: 94 661 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
urtiaga.s@terra.es

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

## LORAZAINTZA

*Jardines*  
**Patxi**  
*Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

**MARKIEGI**

Plateruen plaza 4, beheak  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com

**Ubide**  
iturgintza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza



## ELORRIO

Otsailaren 1ean ipini zuen martxan udalak auzo-taxi zerbitzua, eta ekainera arteko datuen balantzea jakitera eman du prentsa ohar bidez. Guztira 653 bider erabili dute herritarrek zerbitzua. Ana Otadui alkatea pozik azaldu da balantzeagatik: "Datu hauek helburua lortzen ari dela eta ekimena arrakastatsua dela frogatzen dute, zerbitzua gero eta elorriar gehiagok erabiltzen dute-eta". Zerbitzuaren erabilerak goranzko joera eduki du, hilez hile gero eta gehiagok hartu dutelako taxia. Otsailean egindako bidaia 73 izan ziren, martxoan 93, apirilean 128, maiatzean 165 eta ekainean 194.

Auzo-taxiaren funtzioa herri-gunea eta auzoen arteko lotura egitea da. Batez ere, mugikortasun arazoak dauzkaten eta ibilgailu propioa ez daukaten zuzendu-

**Erabilerak goranzko joera eduki du, hilez hile gero eta gehiagok hartu dutelako taxia**

ta dagoela azaldu dute udal ordezkariak. Herriko hamazazpi gunetara ailegatzen da auzo-taxia, eta Leiz-Miota auzokoak dira gehien erabili dutenak -bidaiei %32-.

### Euro biko bidaia

Balantzean, auzotarren bidaiei motibazioak ere jaso dituzte. Gehiengoak, %31k, erosketak egiteko erabili du auzo-taxia. Aisial-


**Bidaiei motibazioak ere jaso dituzte. Gehiengoak, erosketak egiteko erabili du auzo-taxia**

dirako %19k, barikuetako merkaturako %17k eta osasun zentrorako %16k. Erabiltzaileek euro bi ordaindu behar dituzte bidaia-ko, eta zerbitzuaren gainerako gastua udalak kubritzen du. Momentuz, gastu hori 5.642 eurokoa da.

Abuztuko etenaren ostean, irailean berriro ere martxan ipiniko dute auzo-taxi zerbitzua: astegunetan 07:30etatik 20:00etara eta zapatuetan 09:00etatik 14:30era. ■ M. Onaindia

# Bost hilean, 653 bider erabili dute auzo-taxia elorriarrek

Ana Otadui: "Datu hauek ekimena arrakastatsua dela frogatzen dute"



Taxiek auzoetarako zerbitzua euro biren truke ematen dute.

## Herritarren partaidetza plana, irailerako prest

Gardentasuna bermatzea gura du udalak

Elorrioko Udala herritarren parte-hartzea garatzeko plana prestatzen dabil. Irailerako plan hori amaituta egotea itxaroten dute, azaldu dutenez. Helburua, udala eta herritarren arteko komunika-

zio eredu berri bat lantzea da. Udalaren kudeaketan gardentasuna bermatzea eta partaidetza modu naturalean ematea gura dute.

Ana Otadui alkatea partaidetza hori bultzatzeko metodo bat

ere aurreratu du: "Parte-hartzean, eztabaidan eta deliberazioan oinarritutako gobernatzeko eredu bat bultzatu nahi dugu, eta helburu horretan teknologia berrien erabilerak garrantzia handia izango du". Edozelan ere, foro zabalak ere sortuko dituzte. Talde politikoek, teknikariek eta herritarrek komunitatearen interesekoak diren proiektuetan elkarrekin lan egin ahal izango dute, alkatearen arabera. Ahalik eta biztanle gehien inplikatzeko lortu gura dute. ■ M.O.

## MALLABIA

## Gauetz kaleko argiak amatatzen hasi da udala

Kontsumoa gutxituz faktura merketu gura dute

Mallabiko Udala gauetan herriko argiteria publikoa apurka-apurka amatatzen ari da. Argindarraren kostua oso handia dela irizita, neurriak hartzeko premia dagoela konturatu da udala, Mila Mon-

dragon alkatearen berbetan. Hiri-gintza batzordean eztabaidatu ostean, gaueko 00:00etatik goizaldeko 05:00etara argiteria publikoaren zati bat amatatzea erabaki zuten. Uda hasieran Mallabarre-

natik kanposantura doan bidean amatatu zituzten lehenengo argiak. Gero, herriko hainbat auzotara zabaldu zuten ekimena. Alkateak azaldu duenez, "epe luzera ikusiko ditugu neurri hauen emaitzak".

### Gainerako neurriak

Energia kontsumoa murrizteko udalak beste hainbat neurri hartu ditu. Iaz LED argiak ipini zituzten herrian. Eskoletan, berriz, oporrak aprobetxatuz kontsumo baxuko argiteria ipini dute. ■ J.G.

## IURRETA

## Zinegotzi kargua utzi du Maitena Barrenetxeak

Maitena Barrenetxea zinegotzi jeltzaleak Iurretako Udaleko bere kargua utzi du. Uztailaren 20an egindako udalbatzarrean aurkeztu zuen kargua uzteko idatzia. 2007an hasi zen udal jardunean

Barrenetxea. Dagoeneko bere ordezkia nor izango den ezagutzera eman dute. Bere karguan Txomin Balanzategi ariko da hemendik aurrera.

Arazoi pertsonalengatik erabaki du zinegotzi kargua uztea Maitena Barrenetxeak. Prozedimendua jarraituz, kargua uzten duela azaltzen duen agiria hautetsi-batzordera bideratuko du Iurretako Udalak. Ondoren, Balanzategi hartuko du bere lekukoa. ■ A.B.

## Udal Gaztedi foru erakundean parte hartuko du Iurretako Udalak

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Udal Gaztedi planari atxikituko zaio Iurreta. Azken udalbatzarrean EAJren eta PPren aldeko botoei esker onartu dute parte hartzea organu aholkularia horre-

tan, gazteriari zuzendutako politika integralak lantzeko helburua duena. PSE-EE alderdiak kontrako botoa eman du bozketan, eta Bildu abstentitu egin da.

### Eskualdeko zazpigarrena

Iñaki Totorikaguena alkatea izango da Iurretako Udalaren ordezkari foru organuan. Durangaldeko zazpigarren herria da planarekin bat egiten. Abadiño, Berriz, Elorrio, Garai eta Mallabiak aurretik ere kide dira. ■ A.B.



gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua



Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO



Hurrengo eraikuntza

DURANGO



IURRETA

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta  
www.zarateyelexpe.com

**Elorrioren aukera onak**



ATXONDO

## Udalak hartuko du Kilometro Bertikalaren ardura bere gain

Orain arte Gipuzkoako Brinean mendi taldeak antolatzen zuen Anbotoko Kilometro Bertikala Atxondoko Udalaren esku geratuko da aurtengo lehenengoz. Mendi lasterketak bosgarren aldiz egingo du urriaren 6an.

**Aurtengo ez dute gonbidapenik bidali; izena ematen dutenek bakarrik parte hartuko dute**

Lasterketak orain arteko lau aldiatan hartu duen izaerari eutsiko dio, aldaketa txiki batzuekin. Esaterako, aurtendik aurrera lasterketa herrikoiagoa izango da, udal ordezkarien esanetan. Orain arte, hainbat parte-hartzaile gonbidapenen bidez etortzen ziren, baina aurtengo ez dute gonbidapenik bidali; izena ematen dutenek bakarrik parte hartuko dute. Izen-ematea hasita dago. Honako webgunean egin daiteke inskripzioa: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com). ■ J. D.

MAÑARIA

## Liburutegi berriko obrari ekingo dio udalak irailean

Errekondo eraikinean atonduko diote leku berria liburutegiari eta 2013 hasieran zabaldu gura dute

**M**añariarrek liburutegi berria edukiko dute 2013an. Udalak irailean hasiko ditu lanak, eta uste dute datorren urte hasierarako prest egongo dela. Errekondo eraikinarekin lehenengo pisuan egokituko dute. Ikasteko mahaia, taldeko

**Azterketa sasoian 24 orduz erabiltzeko aukera ematea aztertzen ari dira**

lanak egiteko gunea eta umeen txokoa ipiniko dituzte bertan. KZgunea ere hara erango dute. Liburuak eta baldak gune zaharretik berrira erango dituzte. 83.200 euroko aurrekontua eta %44ko laguntza dauka obrak; oraindik beste bi laguntzaren zain daude.

Endika Jaio alkatearen ustez, Errekondo leku hobea da ikasteko. Frontoian, frontisaren atzealdean dago egungo liburutegia, eta piloten zarata entzuten ei da. Gainera, zerbitzuari buruz herriko ikasleekin berba egiteko asmoa agertu du Jaio. Azterketa sasoian 24 orduz erabiltzeko aukera ematea aztertzen ari dira. Egungo liburutegian zer egin ere herritarrekin kontsultatuko dute.

Udalak 2009an erosi zuen Errekondo, kultur etxe bihurtzeko. Beheko solairuan taberna dago, eta jubilatuen egoitza da gaur egun. Bigarrenetan tailerrentzako lekua egiteko asmoa daukate, eta baliteke jubilatuek ere etorkizunean han edukitzea txokoa. Hauek gainerako herritarrekin erlazionatzea sustatu gura dute. ■ M. Onandia



Endika Jaio alkatea, Errekondon, etorkizuneko liburutegian.

OTXANDIO

## Udalak euskaraz ikasteko diru laguntzak emango ditu

Gehienez matrikularen balioaren erdia hartuko dute herritarrek, %80ko asistentzia egiaztatuta

Ikastaro bereziak antolatu dituzte AEK-k, Otxandioko Berbalagunek eta Otxandioko Euskaldunek Amaraune sareak, HABEren azterketak (1., 2. eta 3. maila) eta EGA prestatzeko. Baita Berbalagunegaz mintzapraktikarako saioak ere. Ordutegia ikasleek eta antolatzaileek adostuko dute, eta ikastaro guztiak diruz lagunduta daude.

Udalak eskolarako matrikulatarako 300 euro inguruko diru-atala gorde du. Dirulaguntza, matrikularen kostuaren %50ekoa izango da gehienez. Berbalaguna, berriz, doan izango da. Otxandion edo kanpoan (barnetegian

nahiz ohiko ikastaroetan) euskararikosten duten otxandiarrek eskatu ahal dute diru laguntza eta herrian erroldatua egotea ezinbesteko baldintza da horretarako. Era berean, matrikula ordainduta izan behar du eskatzaileak eta gutxienez %80ko asistentzia egiaztatu beharra dago.

Euskara Zerbitzuaren bitartez egin daiteke eskaria. Baita honako modu bietara ere: e-mail bat idatzita ([euskarabatzordea.otxandio@bizkaia.org](mailto:euskarabatzordea.otxandio@bizkaia.org)) edo telefonoz 945 45 00 20. Laguntza eskatzeko epea irailean 14a bitartean dago zabalik. ■ J.D./A.B.

IZURTZA

## Abisua izurtzar bati uraren sareko konponketak oztopatu dituelakoan

Ekainean ur hornidura barik egon ziren 27 orduz Eleizaldeko hainbat baserri

Ekain amaieran ur hornidura barik geratu ziren 27 orduz Eleizalde auzoko baserri asko, 20:30etik hurrengo eguneko 23:30 era. Herritar batek abisua eman ostean, Udal Sareko ordezkariak lehen gau hartan hurreratu ziren. Kaltea Domingo Gorroñoko izurtzarraren lur zatian zegoen eta hark ez zien sartzen utzi, partzuergoaren txostenaren arabera; bihamunean ere sarrera galerazi zuten. Ondorioz, Udal Sareko langileek uraren pasabidea desbideratzea erabaki zuten, eta gauean berrezarri zuten ur hornidura. Gertatu zenagaz haserre, hamasei herri-

tarrek idatzi bat aurkeztu zuten udaletxean. Idatziak eskaera bi jasotzen zituen: norbanako horren kontra udalak hartu beharreko neurriak hartzea eta lurzati horretarako sarbidearen esku-duntza zelan dagoen argitzea.

Uztaileko udalbatzarrek honakoa onartu zuen: Gorroñori "ohartarazpen serio bat" helaraztea idatzi bidez, horrelakorik berriro gertatu ez dadin eskatuz eta hurrengoan bide judiziala hartu dezaketela adieraziz. Horrelako kasuetan lurzati horretarako sarbide eskubidea badutela ere jakinarazi zuten udalbatzarrean. Kon-

ponketako gastuen kargu (1.556 euro) Ur Partzuergoa egingo da.

Etor Gorroñok (Domingoren semea), bere bertsioa eman du: "Familiak konpondu gabeko eskakizunak ditu udalagaz. Familiak eskatu zuen gauza bakarra arduradun tekniko batekin berba egitea zen eta ez zen inor agertu. Zapatu eguerdian eman zitzaizen baimena gure lur zatian sartzeko, baina dagoeneko erabakita zuten by-passa egitea". Gorroñoren ustez, "Gobernu taldearen erantzukizuna horrelakorik ez gertatzea ere bada eta ez dugu horretarako borondaterik ikusi". ■ J.D.

**momotx**  
t a b e r n a  
plateruen plaza, 12 • 48200 durango  
tel.: 94 681 10 06

**BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda  
Grupo CATALANA OCCIDENTE  
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

**"BODEGUILLA"**  
TRAÑA-MATIENA  
Tfno. 94 681 43 85

**ALBERDI**  
HARATEGIA HARATEGIA  
DURANGO

**Bertako okela**  
Aurretiaz prestatutako janariak  
Askatasun etorbidea, 1  
Tf: 94 681 76 58  
48200 DURANGO

**ODOLOSTETAN GAILEN - 2009**  
Eminencia en la elaboración de Morcillas  
**Alberdi Harategia**

**ALBERDI**  
prekozinatuak



**OPORRETARAKO  
ETA ASTEBURUETARAKO  
ESKaintza ezin hobe  
batekin amets  
egiten duzu ?**

**hemen  
duzu !!**

Astebeteko oporrak hondartzan  
hurrekin, asteburu erromantiko  
bat, itsaski-jana...  
Mundu guztiak du ametsen bat,  
zein da zurea?



## COSTA DORADA

**LES OLIVERES HOTEL \*\*\***

Irailean eta urrian. **Beraien artean  
metagarriak diren 3 eskaintza  
ezin hobe:**

- Mantenu osoa mantenu-erdiaren orde
- Otorduetan ura eta ardoa barne
- 7 egun Gren prezioan

Goza ezazu Ebroren Deltako natur  
Parkearen xarmaz. Hotela hondartzatik  
200 metrora dago eta Port Aventuratik  
20 minutura baino ez.



## ASTURIAS

**LLANES. VILLA DE LLANES HOTELA\*\*\***

Irailean eta urrian. 3 egun-  
2 gau. Gosariak barne.

**90€**

**ESKaintza!! ITSASKI JANA  
ASTEBURUA**

Barne daude: 2 gau OG  
erregimenean (ostirala eta  
larunbata) + Itsaski-jana



## KANTABRIA

**QUIJAS. POSADA LA VENTA  
DE QUIJAS \*\*\***

Irailean, urrian eta  
azaroan. 4 egun-3 gau.  
Gosariak barne.

**100€**

**ESKaintza!! 3 gau  
2ren prezioan**



Oinarritako prezioak pertsonako  
logela bikoitzean. Kontsultatu  
daiek eta antolatzaileen gainerako  
baldintzak. Kudeaketa-gastuak 0€.   
Plaza kopuru mugatua: ENK 618.



[www.viajeseroski.es](http://www.viajeseroski.es)



**EROSKI** bidaiak

Ametsetan? Egizu legan!



## Durangaldean labor

### Muntsaratz auzoan jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Asteburua jai giroan gozatzeko programazioa osatu du Muntsaratzen. Gaur, 19:00etan altxatuko dute Donien Atxa, eta jaia goizaldera arte luzatuko dute. Kalitatea Fundazioaren laguntzagaz antolatutako parrillada eskainiko dute afaltzeko, eta Durangaldeko musika taldeek kontzertua eskainiko dute gero. Mozorro eguna ospatuko dute bihar, eta umeentzako hainbat ekitaldi izango dira etzi.

### Ikurriña plazako iturrian ipini du Elorrioko Udalak

Plazan, iturri alboan ikurriña bat ipini du udalak asteon. Uda hasieran, epaitegien aginduz Espainiako bandera ipini zuten udaletxean, baina balkoi nagusian barik, atzealdean. Legeak dio bandera administrazio eraikinen leku nagusietan egon behar dela ipinita, gainontzeko banderekin batera. Plazan ikurriña ipinita, udaltzeko beste biak baino hobeto ikusten da.



### Ortu ludikoen elkarteak sortu guran

Mallabian martxan jarri gura duten ortu ludikoen elkarteak eratzeko batzarrak deitu du udalak. Irailaren 6an, egunean, 19:00etarako jarri dute hitzordua Kultur Etxean. Izena eman duten hamabost lagunez gainera, parte hartzeko interesa duten herri-tarrak gonbidatu dituzte.

#### BERRIZ

## Auzoetan Wifi antenak ipintzen hasiko dira

Uhin elektromagnetikoak neurtzeko azterketa egin dute eta laster jasoko dituzte emaitzak

**M**artxan ez dauden arren, herrigunean dagoeneko Wifi seinalea emititzen duten antenak ipinita daude. Laster, herri osora Internetarako sarbide hori auzoetara zabaltzeko antenak ipintzen hasiko dira.

Wifi aparailuak potentzia baxukoak izango direla azaldu du Orland Isoird alkateak: "Ez dute

enpresek eskaintzen duten abiadura izango". Deskargak egin edo pelikulak ikusteko baino, kontsultetarako eta e-postak begiratzeko konexioak egin ahaliko direla argitu du alkateak.

Egitasmoagaz batera, Berrizko Udalak uhin elektromagnetikoak neurtzeko azterketa agindu du, eta irailean jakingo dituzte emaitzak. Alkatearen berbetan, mugak ez gainditzea zaindu gura dute: "Bi urterik behin jarraipena egitea da asmoa". Herrigunean batez ere emaitza altuak egon ahal direla uste du Isoirdek: "Ordenagailu eramangarri batek antenak baino uhin gehiago emititzen du".

**Wifi aparailuak potentzia baxukoak izango dira: "Ez dute enpresek eskaintzen duten abiadura izango"**



Herriguneko hainbat puntutan uhin elektromagnetikoak neurtu dituzte.

#### Kuota baten truke

Azterketaren emaitzak ondo badaude, eta auzoetako wifia herri guztiagaz lotu ahal bada, urtearen amaieran edo urtarrean erabilgarri egongo dela azaldu du alkateak.

**Urtearen amaieran edo urtarrean wifia erabilgarri egotea espero dute**

Herritarrek kuota bat ordaindu beharko dute. "Minimoa izango da, kostuak ordaintzeko. Legeak derriortu egiten gaitu zeozor kobratzera, enpresei konpetentzia ez egiteko". ■ A.U.

## Haurreskolako aire egokitua konpondu dute

Zabaldu zutenetik arazoak izan dituzte beroagaz

Ikasturte berria aire egokituko arazoak konponduta hasiko dute Berrizko haurreskolan. 2009an zabaldu zutenetik beroagaz arazoak izan dituzte, eta uda hone-tan sisteman aldaketak egin dituzte. Horretarako 15.000 euroko aurrekontua eduki dute.

Orland Isoird alkateak azaldu duenez, orain arte egon den sistema "ez da nahikoa izan beroa ekiditeko", eta instalazioa beste modu batean ipintzeko premia zegoen haurreskolan. Udan egin dituzte lanak, uztailera udalbatzan aurrekontua onartu eta gero. ■ A. U.

#### ZALDIBAR

## San Andresko obra espero baino askoz merkeago

Konponketetan, 82.200 euro aurreztuko dute

Astelehenean hasi zituzten San Andres auzoan ur hornidura sareagaz zeukaten arazoak konpontzeko lanak. Lan horiek astebetean amaitzea aurreikusten dute. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez,

90.000 euroko gastua aurreikusten zuten lan horietan, baina, hasieran eskuartearen zerabiltena baino irtenbide samurragoa topatu dute, eta asko merketu dute kostua: 7.800 euroguz konponduko dute San

Andres auzoan matxura zeukan uraren sareko zatia.

#### Plaza, berriztuta

Uztail amaieran hasi zituzten Zaldubaz plazako lurra berritzeko lanak, eta hamar egunetan amaitu zituzten. Orain, eliza sarrerako zorua eta eskola eremurako eskailerak ere konpontzea falta da.

Asteon, oster, KZgunearen hondakinak jasotzea amaitu dute. Abuzturen 20an bota zuten eraikin hori. ■ I.E.

# Durangaldeko Baserritarren Elkartea

**Murueta, 6**  
**Tel.: 94 681 87 92**  
**48200 ABADIÑO BIZKAIA**

**A. Urreta**  
 podología

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea  
 48200 DURANGO  
 Tel./Faxa: 94 621 54 04

**Ainara Urreta Jainaga**  
 PODOLOGOIA 188. Elkargokidea



## BERBAZ &gt;

# “Besteen alde lan egiten duten guztiek bide baten sinesten dute”

Azken sei urteak Ekuatore Gineako hiriburuan egin ditu Maria Gabina Agirre Salterainek; laster bueltatuko da hara

**G**aztetan bokazioa zelan hel-  
du zitzaion azaltzea gaitza  
egiten zaio Maria Gabinari,  
baina hala izan zen; misiolari iza-  
teko bidea hartu zuen. Jubilatuta  
ezin izan du lan horretan jardun.  
Orain, bizitza ulertzeko ikuspegia  
goitik behera aldatu zaiola dio.

*Noiz edo zelan etorri zitzaizun misiolari  
izateko gogoa?*

Hamazortzi-hogei urtegar planteatu  
nuen bokazioa. Ezagutzen nuen misiola-  
rien lana apur bat, Los Riosekin, eta gure  
etxe alboko moja bi ere joan zen misiota-  
ra. Baina bokazioa zelan etorri zitzaidan  
apur bat misterioa da. Joaten nintzen  
mezetara, maiatzean lorak eskaintzen  
genizkion ama birjinari, errosarioa erre-  
zatu... Baina normal. Gure etxean sines-  
tunak izan dira, baina ez modu berezian.  
Ezingo nuke inoiz ondo azaldu. Ez zen  
izan ni baten baten bila joan nintzela,  
baten bat nire bila etorriko balitz modu-  
ko zeozer izan zen.

“Bokazioa zelan etorri  
zitzaidan apur bat  
misterioa da”

*Eskeletan ibilizara irakasle, jubilatuta arte.*

Bai. Nik misiolari izan gura nuen, hori  
gustatzen zitzaidan, eta eskatu nuen  
misiotara joateko eta ez zidaten baime-  
nik eman; jubilatuta arte ez naiz joan.  
Niretzako esperientzia oso gogorra izan  
da. Malabo kapitalean eskolatxo baten  
egon naiz, hiru urtetik seigarren mailara-  
ko umeekin. Niretzako gauza handia  
izan da, errebelazio bat, guztiz. Askotan  
irakurri dudun pasarte bat irakurriko  
dizut:

[Irakurri duen pasarte San Juanen  
ebanjeliokoa da, testigu izatearen eta  
bizitakoa elkarbanatzearen ingurukoa]

Oso gogorra da, hau ez da ipuin bat. Hor  
dago borroka, hor daude boluntarioak,  
hor daude gazteak, eskolak... Han egon  
naiz, ikusi dut, ukitu dut, horrela da.  
Sinestu dut. Lan asko egiten duen jendea  
ezagutu dut, eta hori leku guztietan  
dago, ez bakarrik elizan. Uste dut oso  
gaitza dela ateoia izatea, ezertan ez sines-  
tea; besteen alde lan egiten duten guz-  
tiek bide baten sinesten dute.

*Zeintzuk dira zure ustez Malaboko pre-  
mia handienak?*

Gobernuak ez die pertsonen jaramonik  
egiten. Hezkuntzan gabezia handiak  
dauzkate, osasun arloan ere bai. Petro-  
lio daukate Ekuatore Ginean, gas natu-



“Ez dakit zelan egon daitekeen horrenbeste  
erresistentzia elkar ulertzeko. Pertsonak gara azken  
finean, eta bata bestearen premia daukagu”

rala ere topatu dute, eta ez dakite euren  
ere zenbat diru sartzen den. Hezkuntza  
arloan, seriotasun gutxi dago herri esko-  
letan, irakasleek kale egiten dute asko-  
tan... Horrek ondo funtzionatuko balu,  
gauzak oso desberdinak izango lirateke.

*Gobernuaren jarrera hori zelan bizi dute  
herritarrek?*

Jendeak badauka injustiziaren kontzien-  
tzia baina ezintasun handia dago, Go-  
bernuaren aurrean ezin delako ezer  
egin. Hezkuntzak funtzionatuko balu,  
beste kontu bat izango litzateke.

*Errebelazioaz berba egin duzu. Asko alda-  
tu zaitu hango egonaldiak?*

Honek guztiak urte hauetako nire ibilbi-  
dea ulertzen laguntzen dit. Gezurra ema-  
ten du, baina horrela da. Orain gauzak  
askoz ere sinpleago ikusten ditut. Dena

**Maria Gabina  
Agirre Salterain •**

- 71 urte dauzka
- Gerediaga (Abadiño)  
auzokoa da

orokorrean. Hemengo egoera politikoa  
ere bai: ez dakit zelan egon daitekeen  
horrenbeste erresistentzia elkar ulertze-  
ko orduan. Pertsonak gara denok azken  
finean, eta bata bestearen premia dau-  
kagu. Han bizirauteko lan handia egiten  
dute. Malaboko umeek, eskolara joan  
aurretik uraren bila joan behar izaten  
dute, eta ez dakit zenbat gauza egin  
behar izaten dituzten lehenago.

*Krisia dela-eta horrelako errealtateak  
ahazteko arriskua ikusten duzu?*

Ez dakit. Lehenagoko kontua ere bada;  
han pasatzen denaren berri handirik ez  
dago hemen. Zaildu egiten dute komuni-  
kabideen bidez hona albisteak heltzea.  
Beste mundu bat da. Bertara sartzeko ere  
oztopoak jartzen dituzte, arbitrarioa iza-  
ten da baimena ematea. ■ A.Ugalde





# OSASUN GIDA



## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

### FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

**tf. 94 465 71 32**  
**mug. 686 906 374**

## PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia  
Oinaren kirurgia

**IMQ - SANITAS - ARESA**  
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO  
**tf: 94 620 11 00**

## ODONTOLOGIA



### B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALITATEAK

**Murueta Torre, 2- C behea**  
**48200 DURANGO**  
**tf: 94 681 99 51**



### HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00  
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4  
48200 DURANGO  
**tf. 94 466 94 00**



### GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA  
Kiropodia, Onikopatia, Alterazio  
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

**Monago Torre, 4- behea**  
**48200 DURANGO**  
**tf: 94 620 36 30**



### J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
ortodontzia

**Zumalakarregi 18- 1. ezk.**  
**48200 DURANGO**  
**tf: 94 681 22 00**



### FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

*Erditze aurreko eta ostekoa, txisari  
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,  
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...*

**Iturriza, 44 -behe ezk.**  
**48240 BERRIZ**  
**tf. 94 622 55 93**

## ODONTOLOGIA



### ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren  
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.  
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

**Arkaraz, 3**  
**48240 BERRIZ**  
**tf. 94 622 50 99**

## PSIKOLOGIA



### JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango  
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

**tf: 94 603 32 46 - 629 245 728**



### PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA  
&  
OSTEOPATIA

**Muruetatorre, 2D**  
**48200 DURANGO**

**tf. 94 655 00 49 / 695 784 963**







# Izurtzako jai egitaraua

## **ABUZTUAK 31, barikua**

- **16:00.** Frontenis txapelketa.
- **20:00.** Txupinazoa eta trikipotea.
- **22:30.** Kontzertuak Gazte Lekuan.

## **IRAILAK 1, zapatua**

- **11:30.** Auzo olinpiadak.
- **12:00.** Paella libre lehiaketa.
- **13:30.** Enkartelada.
- **14:30.** Paella lehiaketaren aurkezpena.
- **15:00.** Herri bazkaria.
- **17:30.** Bingoa.

## **IRAILAK 2, domeka**

- **10:00.** Kalejira Jaizale taldeagaz..
- **11:00.** Meza Santa Agedako basilizan.
- **12:00.** Mendigain dantza taldearen ekitaldia.
- **13:00.** Bertsolariak: Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Gorka Lazkano.
- **14:30.** Herri bazkaria Santa Agedako landan.
- **16:00.** Apostu herrikoia.
- **17:00.** Sun magoa: *Xistera majikoa*
- **20:00.** Lotxo taldea.

## **IRAILAK 7, barikua**

- **18:30.** Frontenis txapelketa.
- **22:00.** Dj ekitaldia Gazte Lekuan.

## **IRAILAK 8, zapatua**

- **10:00.** Kalejira Jaizale taldeagaz.
- **11:00.** Meza Erdoitzako basilizan.
- **12:00.** Mendigain dantza taldearen ekitaldia.
- **12:30.** Pilota partiduak Izurtzako frontoian.
- **16:30.** XXI. Mountain Bike ibilaldia.
- **18:00.** Igel txapelketa Azkonizagan.
- **19:00.** Tortilla txapelketa.
- **20:30.** Tortillen aurkezpena.
- **21:00.** Herri afaria.
- **23:00.** Luhartz. Goizaldean txokolatada.

## **IRAILAK 9, domeka**

- **10:00.** Kalejira jaizale taldeagaz.
- **11:00.** Meza Santo Tomas basilizan.
- **12:00.** Mendigain dantza taldearen ekitaldia.
- **12:30.** Bertso saioa: Miren Amuriza eta Garikoitz Sarriugarte
- **13:30.** Gorriti eta bere abereak.
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria.
- **15:30.** Umeen jolasak.
- **17:00.** Mus txapelketa
- **17:30.** Potxin eta Patxin pailazoen saioa



## **RECUPERACIONES Y TROCEADOS,SAL**

Elizalde auzoa, 47  
Tel. / Faxe: 94 681 89 79  
48213 IZURTZA  
info@recytro.net  
www.recytro.net



**Galdaketa eta  
Siderurgirako Produktuak**

Foseco Española, S.A.  
Elizalde auzoa, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)  
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73  
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

**VESUVIUS**



# Txupinazoa jaurtita ekingo diote asteburuko biko jaiari Izurtzan

Ghertzainak eta Txomin Bedarrak taldeek girotuko dute jaietako lehenengo gaua

Jaiak martxan jartzeko prest dute dena izurtzarrek, antolatzaileen esanetan. Gaurarratsaldeko frontenis txapelketagaz egitaraua zabalduko duten arren, hasiera ofiziala 20:00etan izango da. Txupinazoa jaurti eta trikipoteoak girotuko du iluntzea.

Gauean berriz, kontzertuak izango dira Gazte Lekuan. Durangaldeko talde bi igoko dira taula gainera. Ghertzainak taldekoek Hertzainaken bertsioak joko dituzte. Txomin Bedarrak taldeak berriz, erromeria doinuak eskainiko ditu Izurtzan.

Herri olinpiadak jaietan jokatuzan diren arren, aurtengo auzoen artean lehiatuko dira. Zapatuan izango da hori, goizeko 11:00etan. Ostean, paella lehiaketako parte-hartzaileek su txikian herri bazkarirako plater nagusia prestatuko dute. Urtero harrera bikaina iza-

ten duen ekitaldian herritar asko batzea itxaroten dute antolatzaileek.

**Domekan, Santa Agedara**  
Santa Agedara lekualdatuko da jai domekan. Santa Agedako baselizako mezaren ostean, Mendigain

dantza taldeak erakustaldia eskainiko du. Herri bazkarirako, landan elkartuko dira. Bazkal ostean berriz, apostu herrikoia egingo dute. Sun Magoa etorriko da gero, eta eguna behar den moduan amaitzeko, Lotxo taldeak erromeria eskainiko du.

Datorren asteburua ere ekitaldiz beteta dator Izurtzan. Irailaren 7an, barikuan, Dj ekitaldia izango da Gazte Lekuan. Zapatuan

Disfraz Gaua prestatu dute eta aurtengo aukeratu duten gaia kirolak izan da



meza Erdoitzako baselizan izango da. Disfraz Gaua prestatu dute eta aurtengo aukeratu duten gaia kirolak izan da. Afari herrikoira moztortuta joateko gonbita luzatu dute eta, goizaldera arte, Luhartzen erromeria doinuak egongo dira. Irailaren 9an, Santo Tomas baselizan izango da meza. Jubila-tuentzako bazkariak aparte umeentzako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gorriti eta bere abereak, jolasak eta baita pailazoak ere.

## Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Gorka Lazkano, domekako saioan

Bertso saio bikoitza izango dugu Izurtzako jaietan. Lehenengo Santa Agedan izango da, domekan, 13:00etan. Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Gorka Lazkano dira aurtengo Izurtzako jaietako antolatuak gonbidatu dituzten bertsolariak.

### Amuriza eta Sarriugarte

Datorren asteburuan, Durangaldeko bertsolari bik osatuko dute saioa: Miren Amuriza berriztarrak eta Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak. Hurrengo domekan izango da saioa, irailaren 9an, eguerdiko 12:30ean. Biek parte hartuko dute Bizkaiko Txapelketan, eta lehiaketara begirako entrenamendu proposa izan daiteke.

## Jaiak bai, kirola ere bai

Parrandaz gainera, kirolari lotutako ekitaldi gehiago antolatu dituzte



Izurtzako jaietako Mountain Bike ibilaldiak bere 21. aldia izango du aurtengo. Tradizio bilakatu den ekitaldiak geroago eta txirrindulari gehiago batzen ditu. Urtero antzeko ibilbidean elkartzen dira parte-hartzaileak: Bitaña eta Nebera inguruan.

Txirrindularitzako ekitaldiaz gainera, pilota partidek ere Izurtzako jai egitarauan leku finkoa izaten dute. Irailaren 8an, 12:30ean jokatuko dira partidak.

Frontenis jokalariek berriz, saio bikoitza dute Izurtzan. Gaur arratsaldeko 16:00etan ekingo diote txapelketari Izurtzako frontoian. Irailaren 7an jarraituko dute partiduekin, 18:30ean.

Tradizio bilakatu den ekitaldiak gero eta txirrindulari gehiago batzen ditu

**Bodegas Launa Arabar Errioxa**  
www.bodegaslauna.com  
info@bodegaslauna.com  
Tel.: 94 682 41 08

**IZURTZAKO HERRIKO TABERNA**

**BEREZITASUNA:**  
Urdaiazpikoa - Solomo iberikoa  
Gazta - Salamancako txorizoa

**Tel.: 94 620 20 24 - IZURTZA**



PLATERUENA

# PLATERUENA IRAILA-URRIA

2012 EGITARAUA

[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)



**08 ZABATUA**  
**JAI SENEALDARRA**  
Antolatzaile: JAPPOO elkartea  
Irailaren 8an, 22:00etan  
Sarrera 3 euro



**14 BARIKUA**  
**BAKARRIZKETA**  
**ERNESTO SEVILLA**  
22:00etan - Sarrera: 10k / 14k



**15 ZABATUA**  
**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**LOKALETIK AT** durangaldeko talde berrientzako eszena  
THE GREG'S MURDER  
THE MOCKERS  
KROME  
22:00etan - Sarrera: DOAN



**21 BARIKUA**  
**ANTZERKIA**  
**MORTIMER**  
Aritz Rodriguezen eskutik  
22:00etan - Sarrera: 0k



**27 DOMINGUA**  
**KANTUZALEENTXOKOA**  
**KANTULAGUN**  
Izen-ematea Plateruenean bertan  
20:00etan



**29 ZABATUA**  
**DASTAKETA EKOLOGIKOA**  
**DASTAKETA EKOLOGIKOA**  
11:00etan: Elikadura ekologikoarekin lotutako ekimenen aurkezpena. DOAN  
13:00etan: Ardo ekologikoaren dastaketa Roberto Sarriugarterekin.\*  
14:30etan: Herri bazkaria osagai ekologikoekin prestatuta.\*  
MARISATSAK eta PLATERUENAK antolatuta.  
\*Aurkezpenak Plateruenean. Hala ere, 25k sarrerak 13k.



**05 URRIA**  
**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**NON SERVIVIM**  
22:00etan - Sarrera: 10k / 14k

[www.plateruenasarrerak.eu](http://www.plateruenasarrerak.eu)



**06 ZABATUA**  
**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**LOS CHICHOS**  
22:00etan - Sarrera: 10k / 14k



**12 URRIA**  
**GAU ELEKTRONIKOA**  
**GAU ELEKTRONIKOA**  
22:00etan - Sarrera: 8k / 10k



**21 DOMINGUA**  
**DANTZALDI BILTARIA**  
**AIKO ERROMERIA**  
[www.aikotaldea.com](http://www.aikotaldea.com)  
18:00etan - Sarrera: DOAN



**25 DOMINGUA**  
**KANTUZALEENTXOKOA**  
**KANTULAGUN**  
Izen-ematea Plateruenean bertan.  
20:00etan



**26 BARIKUA**  
**URTEURREN OSPAKIZUNA**  
**PLATERUENAREN 8. URTEURRENA**  
20:30etan - Sarrera: DOAN



**27 ZABATUA**  
**DANTZAIKUSKIZUNA**  
**KUKAI DANTZA KONPAINIA**  
**JOHN TILBURY (pianoa)**  
**AIKO TALDEA**  
22:00etan - Sarrera: 10k / 14k

AZAROAN DATOZENAK: KANTUAREN KANTOIA, FEAR FACTORY, THE DEVIN TOWSEND PROJECT, IZARREN DISTIRA, IRRIEN LAGUNAK, HOSTOAK, JAM SESSION, MESHUGGAH, CB MURDOC...



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA - Landako etorbidea, 44-48200 Durango - Tf: 946 030 100 - [kultura@plateruena.net](mailto:kultura@plateruena.net) - [www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)



 @anbotokulturaKULTURA<sup>></sup>ZARRAPARRA<sup>></sup> PUNK-ROCK TALDEA

*Zer prestatu duzue Muntzarazko gaurko kontzerturako?*

**Xabi:** Egunotan prestatu dugu kontzerturako kanta zerrenda. Bertsio berri bi joko ditugu, esaterako, gaurko kontzertuan.

*Bertsioak ez ezik, zuen sorkuntzak ere joko dituzue?*

**Martin:** Bai. Geuk sorturiko lau-bost kanta ere badauzkagu prest. **Paul:** Askotariko doinuak eskaintzen ditugu, ez daukagu estilo zehatz bat. Punk-rocka gustatzen zaigu, esaterako, baina akustikoan ere jotzen ditugu kanta batzuk. **Igor:** Udako kontzertuen ostean gure kanta sortzen indar gehiago egitea da gure asmoa.

“Hasi eta tarte batera ikusi genuen abeslaria behar genuela, eta orduan sartu zen Xabi”

*Zelan banatzen duzue kanta sortzeko lana?*

**Martin:** Normalean gitarragaz egindako melodia ekartzen du Paulek lokalera, gero Igorrek Eñaut bere anaia bertsolariaren laguntzagaz egiten du letra, eta denon artean uztartzen ditugu.

*Orain bi urte hasi zinetenetik zertan aldatu da taldea?*

**Paul:** Hasieran beldurtuta moduan egoten ginen kontzertuetan. Asko nabari da orain lasaiago egoten garela. Gehiago disfrutatzen dugu.

*Hasieratik ibili zarete bostok Zarraparra taldean?*

**Igor:** Lau hasi ginen orain bi urte inguru: Martxel baxuagaz, Paul gitarra eta koroetan, Martin baterian, eta ni gitarra eta koroetan.

# “Punk-rocka gustatzen zaigu, baina akustikoan ere jotzen dugu”

Zarraparra taldeko Martxel, Paul, Igor, Xabi eta Martin zuzenean ariko dira gaur Muntzarazko jaietan



Hasi eta tarte batera ikusi genuen abeslaria behar genuela, eta orduan sartu zen Xabi taldera.

*Zergatik erabaki zenuten taldean abeslaria sartzea?*

**Martxel:** Abadiñon eman genuen lehenengo kontzertuan beste lagun batek igo zen Xabi kanta-

“Lan asko egin ostean lortu dugu lokala: eskaera asko egin behar izan dugu”

tzera. Asko gustatu zitzaigun, eta gurekin aritzea proposatu genion.

*Muntzarazko lokalera ailegatu aurretik beste nonbait entseatu izan duzue.*

**Xabi:** Bai, hasieran Iditu Records-en Durangoko lokaletan egiten genituen entseguak.

**Igor:** Lan asko egin ostean lortu dugu lokala: eskaera eta dei asko egin behar izan ditugu.

*Beste talde batzuekin konpartitzen duzue lokala.*

**Martin:** Hiru-lau talderekin konpartitzen dugu lokala, bai: Ymotek eta Kruders-ekin.

**Paul:** Oso harreman ona daukagu Kruders taldekoekin. Asko lagundu gintuzten hasieran, euren ekipoa utzi izan digute, eta lagun handiak ditugu.

*Etorkizunerako zer ideia darabiltzue buruan?*

**Igor:** Gure kanta maketa lehia-ketaren batera aurkezteko aukera suertatuko balitz aprobetxatu gura genuke, baina oso kontzientea gara zaila dela. Gero eta laguntza gutxiago dago talde gazteei diskoa grabatzen laguntzeko.

**Martin:** Kontzertuetan diru apur bat batuko bagenu diskorako aurrezten joatea da asmoa.

*Gura beste kontzertu eskaintze-ko aukera izan duzue?*

**Paul:** Bai, batez ere udan nahikoa aukera edukitzen dugu. Mañarian eta Gernikan jo dugu.

*Zeozor gehitzerik nahi?*

**Xabi:** Besarkada handi bat bidali gura diegu inguruan izan ditugun lagunei, Kruders taldekoei, eta beti hor dauden familiakoei.

## Poliputosegaz zuzenekoak eta Krudersegaz lokala konpartitzen

Kontzertuekin jarraitzeko gogoz daude Zarraparrakoak, batez ere lokalkideekin



Taldean batu zirenetik zenbat kontzertu eskaintzeko aukera izan duten galdetuta, hainbat kopuru bota dituzte Zarraparrako gazteek. Dagoeneko 30 kontzertu eskaini dituztela dio batek, eta kopurua 20ra jaitsi dute beste taldekide batzuek. Ez dira datu zehatzetan ados jarri. Guztiek aho batez diote, baina, hemendik aurrera ere ahalik eta kontzertu gehien eskaintzen jarraitu nahi dutela. Azaldu dutenez, euren kontzertuak ikustera doazen lagunak disfrutatzen ikustea da maite dutena.

Azkenaldian, Poliputos taldeagaz konpartitu dute sarri eszenatokia. Esperientzia handia dute Poliputos punk taldekoek, oso gazterik hasi ziren, “geu bezala”. Hamabost eta hamazazpi urte artean dauzkate Zarraparrakoak.

Desiratzen daude Durangoko jaietan Kruders taldeko lagunekin kartelean agertzeko. Izan ere, entsegu lokalak, laguntasunak eta musikalak batzen ditu talde biak.



MARGOGINTZA &gt;

# Ines Medinaren koadroen bilduma Durangoko Museoan

‘Hemisferios’ bildumako lanak antolatu ditu erakusketan, bere “bizipenak eta sentipenak adierazteko bitartekoak”; domekara arte daude ikusgai


**B**ilbon jaio zen eta tailerra New York-eko Brookling auzoan dauka Ines Medina artistak. Domekara arte Durangoko Museoan izango dira *Hemisferios* bildumako bere lanak ikusgai.

Ines Medina artistak azpimarratu duenez, bere “bizipenak eta sentipenak adierazteko bitartekoak” dira erakusketan ikusi ahal diren margolan koloretsuak. Medinak ohi duena baino formatu txikiagokoak

dira, bestalde, *Hemisferioak* erakusketa honetako koadroak.

Emakumeen nortasunaren inguruan zentratu zuen 70 eta 80. hamarkadetan Ines Medina artistak bere arte sorkuntza eta ikerketa, eta *The unified femininity* erakusketa osatu zuen. Bere lanean Jorge Oteizaren eragina “oinarrizko zutabe” dela esaten du artistak, eta Modrian ere aipatzen du eragin bezala.

Abuztuaren 11tik 26ra bitartean itxita egon da museo, baina astelehenean zabaldu zuten berriro. Bihar, 11:00etatik 13:00etara, eta 18:00etatik 21:00etara dago zabalik; eta domekan, 11:00etatik 13:00etara. ■ I.E.



ZINEMA &gt;

Abuztuan emanaldirik egin ez dutenez, irailan Hilean Behin zikloaren barruko emanaldi bi egingo dituztela iragarri dute Elorrioko Iturri kultur etxeko arduradunek. Irailaren 13an eta 20an, ohiko leku eta orduan izango dira emanaldi horiek: kultur etxeko areto nagusian, 19:30ean.

*Por la noche ellas bailan* emango dute ikasturteko lehenengo saioan. Dantzaren artea belaunaldiz belaunaldi transmititzen duen Cairoko familia baten istorioa da.

Abuztuan eman ez zuten  
‘Mi reencarnación’ irailaren  
20an proiektatuko dute

Bestalde, abuztuan eman ez zuten *Mi reencarnación* irailaren 20an proiektatuko dute. Aita eta semearen arteko harremanari buruzko filma da. ■ I.E.

## Irailan dokumental bi emango dituzte Hilean Behin zikloan

‘Por la noche ellas bailan’ filmagaz abiatuko dituzte opor osteko saioak



GEURE DURANGALDEA

Jon Ander  
Urkiaga  
Ikaslea



## Udako kronika

Zenbakiak zenbaki baino ez direla erraz konturatu ahal izan gara udako hilabete hauetan zehar. Eta hori zergatik diodan, lerrook irakurriz gero zuk zeuk ere jakingo duzu asmatzen. Erantzun sinple batzuk baino ez.

Nori axola dio dagoeneko arrisku saria 500, 530 edo 600ekoa den?

Zenbaki horiek al dira eskolara bueltan ikas-materialarengatik xahutu beharreko euro kopurua? Berdin balio ote du 10 zentimetroko erregelak edo 20koak? BEZ zerga bera ote dute biek ala biek?

Zenbat San Mames Barri osatzen dute uda honetan erretako baso hektarea guztien artean? Ba al du garrantziarik erosi beharreko lorea gorria edo zuria izateak? Luxua petalo kopuruetan neuritzen al da?

Zenbat domina olinpiko behar da mundu mailako potentzia nagusietako bat izateko?

Zenbat familia heldu daiteke hila-bete amaierara arnasa lasai hartuz Fernando Llorentek eta Javi Martinezek kobratu nahi duten soldataren erdia kobratuko balute?

Asko al dira uda honetan eraikitako Abiadura Handiko Trenaren kilometroak? Zein abiaduratan? Zenbat tripa ase dezake supermerkatu batean dohai-nik harturiko otzara batek? Zenbat egu-netan zehar? Eta supermerkatuko jabea-ri zenbateko kalte ekonomikoa eragin diezaioke?

Zenbat domina olinpiko behar dira mundu mailako potentzia nagusietako bat izateko?

Eta guk zenbat urte gehiago itxaron beharko dugu domina olinpiko soil batengatik lehiatu ahal izateko?

*Ai, ai, ai, ai, ai, mila galdera  
ai, ai, ai, ai, ai, baina bat bera  
ai, ai, ai, ai, ai, mila galdera  
erantzuna non ote da?*

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia



IRAILAK 8 22:00etan  
SENEGAL JAIA  
ANTOLATZAILEA: JAPOO ELKARTEA  
JAIA. Sarrera: 5 euro.



IRAILAK 14 22:00etan  
ERNESTO SEVILLA  
BAKARRIZKETA. Sarrera: 12-14 euro.



IRAILAK 15 22:00etan  
THE GREG'S MURDERS +  
THE MOCKERS + KROME  
LOKALETIK AT. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

# irailaren 23an DENBORALDI

## berria!

San Agustín  
KULTUR  
GUNEA

DURANGOKO UDALA



# Hitz

liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776







# Elorrioko JAI EGITARAVA

## ABUZTUAK 31, barikua

- **Egun osoan.** Aukeren Azoka, elizpean. Elorrioko Merkatarik Elkartek eratuta.
- **19:00.** Pilota, plazako frontoian. Berrio-Otxoa Pilotazale Taldeak eratuta.
- **21:00.** *Zergaitik praktikatzen dugu sexua erderaz?* Oihan Vega, euskararen espektakulua.
- **23:00.** Kontzertua: Namek Planet eta Gorantz Erori Proiektua, Txosnagunean.
- **23:00.** Kontzertua: Summum Art vs Kogollo Party Crew, (Visual Set), Gaztetxean.

## IRAILAK 1, zapatua

- **11:30-17:00.** Jolas parkeak. Frontoian, Urarkan eta Kanpokalen (euria eginez gero, Hilario Azkarate kiroldegiko frontoian).
- **19:00.** Bits jaia, frontoian.
- **19:15.** Ordiziako erraldoiak, plazan.
- **20:00.** Txupinazoa eta pregoia Elorrioko Kirol Taldearen eskutik. Sugarri txarangak girotuta.
- **23:00.** Danborrada, plazan.
- **23:00.** The Last Strength eta Bellator, Gaztetxean.
- **00:20.** Suzko zezena.
- **00:30.** Tony Ronald eta Fiesta Guateque, Urarkan.

## IRAILAK 2, domeka

- **10:00.** Abere eta nekazaritza azoka, Feriagunean.
- **Goizean.** Kalejira, Elorrioko Txistulariek eratuta.
- **18:00.** Afizionatuen esku pilota partidak, Hilario Azkarate frontoian. Berrio-Otxoa pilota eskolak antolatuta.
- **19:00.** Chongqing konpainia akrobatikoa (Txina), plazan.
- **20:00.** Los Txikis-en eskutik, habanerak eta bilbainadak, Aldatzekuan.
- **22:30.** Suzko zezena, plazan.

- **23:30.** Jamaica orkestraren ikuskizuna, plazan.

## UZTAILAK 3, astelehena

- **14:00.** Koadrilen arteko bazkaria eta tortilla lehiaketa, Aldatzekuan (mahai eta aulki banaketa 09:00etatik aurrera).
- **16:30.** Jon Zabal mentalista, Aldatzekuan.
- **17:30.** Jau Jau. umeentzako ikuskizuna, Urarkan.
- **18:00.** Koadrilen jaitsiera, Txarantukada Masaranduba eta guretzat txarangekin.
- **19:00.** Koadrilen arteko jokoak, plazan: Adiba dj.
- **20:30.** Erromeria Unsain taldeagaz, Txosnagunean.
- **23:30.** Abiba diskofesta, plazan.
- **22:45.** Suzko zezena, plazan.

## IRAILAK 4, martitzena

- **11:30-17:00.** Jolas parkeak. Frontoian, Urarkan eta Kanpokalen (euria eginez gero, Hilario Azkarate kiroldegiko frontoian).
- **18:00.** Betiko jokoak eta igel txapelketa helduentzat, Aldatzekuan.
- **18:00.** Umeentzako animazioa: Zoom (Markeliñe), plazan.
- **19:00.** Alma Navarra eta Latina taldeen eskutik, Nafarroako jotak eta dantzak, Aldatzekuan.

## IRAILAK 5, eguaztena

- **16:30.** Umeentzako tailerrak, plazan. Txintxirri ikastolak antolatuta.
- **17:00.** Ginkana, plazan. Elorrioko Txirrindulari Taldeak antolatuta.
- **18:00.** Txokolatada, plazan. Txintxirri ikastolak antolatuta.
- **18:00.** Futbol partida: II. Elorrio Hiria Elkartasun Torneo Triangeluarra, Elizalden. Elorrio kirol elkartek antolatuta.

- **19:00.** Umeentzako animazioa: Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak, Urarkan.

## IRAILAK 6, eguena

- **19:00.** Dantzaldia eta dj festa, Aldatzekuan: Arantza Show.
- **21:00.** Full Monty antzerki musikatua, Arriola antzokian.
- **22:00.** XLVIII. Idi-proba Txapelketa, probalekuan.

## IRAILAK 7, barikua

- **12:00.** Meza, hildako jubilatuen omenez Sortzez Garbiaren basilikan.
- **13:00.** Piskolabisa Elorrioko jubilatuentzat.
- **16:00.** Jolas parkeak. Frontoian, Urarkan eta Kanpokalen (euria eginez gero, kiroldegiko frontoian).
- **17:30-19:00.** Areto futbol partidak, Kiroldegian. Buzkantza F.K.E.-k antolatuta.
- **19:00.** Erromeria eta dantza txapelketa: Tropikana Son, Aldatzekuan. Sari banaketa ere egingo dute.
- **19:30.** Umeentzako animazioa: Standa Banda, plazan.
- **19:30.** Jailetako errugbi partida: Elorrio-Arrasate, errugbi zelaia.
- **21:00.** Argentinako tangoak La Luna el El Conventiyo taldearen eskutik, Arriola antzokian.
- **22:00.** XLVIII. Idi-proba Txapelketa, probalekuan.
- **22:30.** Suzko zezena, plazan.
- **23:00.** Kontzertua: Ghertzainak (Tribute to Hertzainak) eta The Mockers, Gaztetxean.
- **23:00.** Erromeria: Caoba taldea, Urarkan.

## IRAILAK 8, zapatua

- **08:00.** Sukalki Eguna, Aldatzekuan. Iturri Zoro elkartek eratuta. *Zatoz mozerroa jantzita!*
- **11:30-17:00.** Jolas parkeak. Frontoian, Urarkan eta Kanpokalen (euria eginez gero,

Hilario Azkarate kiroldegiko frontoian).

- **17:30ean eta 19:00etan,** areto futbol partidak, kiroldegian. Buzkantza FKEk eratuta.
- **17:00.** Senegaleko Diolas-Usoforaz elkartaren eskutik musika eta dantza, Aldatzekuan.
- **18:00.** Txokolatada, plazan. La Esperanza nagusien elkartek eratuta.
- **18:30.** Mozorro eta karrozen jaitsiera, Samasiku fanfarreak girotuta.
- **18:45.** DJ Oihan Vega, plazan.
- **19:00.** Taberna ibiltaria: Tanger-Alkartu-Urarka-Errebonbillo.
- **22:00.** XLVIII. Idi-proba Txapelketa, probalekuan.
- **22:30.** Kale animazioa: Correfoc, herrigunean.
- **23:30.** Kontzertua: Bebe, Txosnagunean.
- **23:30.** Erromeria: Aracel taldea, Urarkan.

## IRAILAK 9, domeka

- **Goizean.** Elkartasunaren Jaialdia, plazan. Kainabera GKEk eratuta.
- **13:00.** Herri Kirolak. Zelai eta Bihurri aita semeen arteko desafioak; Urdax harrijasotzaile gaztea eta Idoia Etxebarría emakume aizkolaria.
- **17:00.** Umeen danborrada, plazan.
- **18:30.** Bertso saioa: Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Julio Soto eta Peru Magdalena bertsolariak, Casajara jauregian. Gai jartzailea: Maite Berriozabal.
- **20:00.** 'Herrixa Dantzan': Arrabots taldea, plazan.

## IRAILAK 10, astelehena


- **22:00.** XLVIII. Idi-proba Txapelketa, probalekuan. Sari banaketa ere egingo dute.



Carlos Villaescusa - Aitor Igarza



- Bainugelako altzari eta komun-ontziak erakusgai
- Zaharberitze eta mantenu lanak



Claudio Gallastegi, 2 • Tel.: 94 682 04 99 • Faxa: 94 658 28 94 • 48230 ELORRIO (Bizkaia)

- MASAJEAK
- AURPEGIKO GARBIKETA
- GORPUTZ TRATAMENDUAK
- MANIKURA ETA PEDIKURA
- DEPILAZIOA
- MAKILAJEA
- LASERRA

estetika zentroa

Labakua, 5 48230 ELORRIO Tel: 946 584 600

**Joyería Aratz**

Herriko plaza, 4 - Tel.: 94 658 34 88  
48230 Elorrio (Bizkaia)





# Inguruko jaizaleak Elorrion batuko dira Ferixa Nausikoak ospatzera

“Adin eta gustu guztietarako egitaraua” eratu dute, gaur hasi eta irailaren 10era arte kaleak jai-giroz betetzeko

**G**aurhasi eta irailaren 10era arte jai-giroz beteko dira Elorrioko kaleak. Irailaren lehenengo domekako feria aste osoko parranda egiteko aitzakia ezin hobea izango da beste behin ere. Antolatzaileek eraturako egitaraua mamitsua da guztiz. Ana Otadui alkateak aniztasuna azpimarratu du: “Adin eta gustu guz-

Feria aste osoko parranda egiteko aitzakia ezin hobea izango da beste behin ere

tietarako egitaraua da”. Jaiak iragartzeko kartelak ere deizabala egiten du. Ume, gazte, heldu, emakume zein gizonak ageri dira Leyre Balerdiren irudian. Elorriarrez gainera, inguruetako jaizaleak ere batuko dira Elorrion.

**Bebe, pastelaren ginda**  
Pastel baten eran osatu dute egi-

taraua, hainbat gozagarri nahastuta. Eta pastel horretako ginda Bebe kantaria izango da. Sukaldarien estilora, kontrastea bilatu gura izan dute: Tony Ronald beterranoak sasoi bateko udako abesti arrakastatsuek ekarriko dituzte goatean. Gustuetaz berba eginda, ezin ahaztu sukalki eguna edota bazkari herrikoia. Koadrilek zer esan handia edukiko dute, urtero legez, jaiari bizitasuna eta kolorea emateko.

Elorrioko kirol elkarteetako kideak izango dira jaiari hasiera ematearen arduradunak. Euren lana errekonozitzeko era bat dela adierazi du alkateak: “Udalak omenaldi berezi bat eskaini nahi die herriko kirol elkarte guztiei”. Bihar, iluntzeko 20:00etan jaurtiko dute txupinazoa udaletxeko balkoitik.

**Elkartasuna, jaietan ere bai**  
Jaiak bizitzeak ez du esan gura kezka eta ardurez ahaztu behar denik. Horren adibide da Kainabera GKEk urtero antolatzen duen Elkartasun jaialdia. Irailaren 9an izango da, goizean zehar. Azaldu dutenez, kulturartekotasuna landuko dute, iaz egin moduan. Hainbat kulturatako janari eta ohiturak aterako dituzte plazako frontoira.

Hamar eguneko festa luzea hasiko da gaur. Egunez egun eta pausuz pausu biziko dute.

## Gazteek aurreratu egingo dute jaiaren hasiera

Gaurhasiko dira Ferixa Nausikoak, eta lehenengo ekitaldi ofizialak iluntzean izango diren arren, aurretik ere egongo da zer ospatu. Bai behintzat gazteen kasuan. Gaurkoa da Gazte Eguna, eta goizean goizetik egingo

dituzte ekitaldiak. 11:00etan umeentzako tailerrak garatuko dituzte plazan, eta 13:00etan tribialean jokatu dute. Elorrioren inguruko galderetan oinarrituta egingo ei dute jokoa. Amaitzean, poteoa hasiko dute

plazatik bertatik. 14:30ean bazkaltzeko elkartuko dira.

Arratsaldean kalejiran irten-go dute. 19:00etan presoan aldeko enkarteladagaz bat egin, eta gero txosnen txupinazora joango dira. Gaurerako Namek Planet eta Gorantz Erori proiektua taldeen kontzertua programatu dute. Elorrioko gazteez gainera, Durangaldeko osokoak gonbidatu dituzte Gazte Eguneran.

Koadrilek zer esan handia edukiko dute, urtero legez, jaiari bizitasuna eta kolorea emateko



# Kirol taldearen sorrera bultzatu zutenak eskertuz

Elorrioko Kirol Taldekoek irakurriko dute Ferixa Nausiko jaien hasierako pregoia

Irailaren 1ean, 20:00etan emango diete Elorrioko Ferixa Nausikoei hasiera. Elorrioko Kirol Taldeko kideek irakurriko dute pregoia, eta eurek botako dute udaletxeko bal-koitik txupina.

Herriko hiru ikastetxeetako 150 ume inguruk osatzen dute Elorrioko Kirol Taldea. Hamar eta hamasei urte bitarteko eskola kirolak antolatzen dute EKT elkar-keak. Futbola, saskibaloia, eska-  
lada, atletismoa, hipika eta surfa

egiten dute umeek, besteak bes-te, EKTren eskutik.

Duela hamarkada bat, Elo-  
rrioko zenbait gurasoren ekime-  
nez sortu zuten EKT. Hiru ikaste-  
txeetako umeak kirolaren ingu-  
ruan elkartzeko ideiaz hasi ziren  
lanean. Ordura arte eskola bakoit-  
zeko umeek hainbat taldetan jar-  
duten zuten eskola kirolean, bakoit-  
zak bere aldetik.

Neska-mutikoez kirolaren  
aitzakian elkar ezagutzeko sortu  
zuten EKT. Hasierako helburu hori  
lortu dutela uste dute taldeko  
kideek: ikastetxe berberetan ika-  
si ez arren, kirolari esker elkar eza-  
gutzen dute umeek eta lagun  
berriak egin.

Pregoian, taldea sortu zuten  
eta ordutik taldean parte hartu  
duten guraso horiek guztiak esker-  
tuko dituzte oraingo EKTko kideek.  
Hala aurreratu du Patxi Landabu-



Hiru ikastetxeetako  
150 ume osatzen  
dute Elorrioko  
Kirol Taldea

Kirolari esker elkar  
ezagutzen dute  
umeek, eta lagun  
berriak egin

ruk, elkarteko kideak. Hasiera har-  
tan zerbait egiteko beharra ikusi  
zutenak eskertuko dituzte Ferixa  
Nausiko jaien hasierako pregoian,  
beraz: "Jende askoren lanari esker  
daukagu gaurko funtzionamen-  
dua; beharrezana ikusi zuten, eta  
eurek sortu zuten dinamika bat".

Hiru eskoletako guraso elkar-  
teetako kideek osatzen dute  
EKTren batzordea, eta gurasoek  
egiten dute taldeak martxan jarrai-

tu ahal izateko lana: borondatez-  
ko lana. Begirale lana ere egiten  
dute gurasoetako batzuek, eurek  
antolatzen dituzte ordutegiak,  
arduratzen dira tramiteez eta abar.

Gerora begira, elkarteko tal-  
deetan jokatu izan duten gazteak  
begirale izateko prestatu gura  
dituztela dio Landaburuk. Kirolean  
euskararen erabilera segurtatzea  
eta kiroleko teknikan gehiago  
sakontzea ere gura dute.



## Jan-edana eta karroza desfilea jaietako egunik saltseroenean

Irailaren 8ko zapatuan, Sukalki Eguna ospatuko dute Aldatsekuan; iaz 1.500 lagunetik gora batu ziren eta 115 kazola aurkeztu zituzten

Ferixa Nausietako ekitaldirik jen-  
detsuenetakoa izaten da Sukalki  
Eguna. Saltsan dago sekretua:  
batetik, gisatu onenaren bila kazo-  
la barrukoa loditzen dutenean;  
bestetik, mozorroturik doazen  
koadrilek sortzen duten jai giroan.

Iturri Zoro Elkartek antola-  
tzen du ekimena urtero. Elkar-  
teko kide Jose Ramon Lazkanoren  
arabera, iaz 115 kazola aurkeztu  
zituzten eta 1.500 lagunetik gora  
batu zituen ekimenak.

Izen-ematea egunean ber-  
tan egingo dute 08:00etatik  
10:00etara, eta doakoa da. Gisa-

tua prestatu, aurkeztu eta epai-  
mahaiak sariak banatu ostean,  
elkarrekin bazkalduko dute.

Arratsaldean, 18:30ean,  
mozorro eta karroza jaitziera egin-  
go dute Guretzat txarangaren

18:30ean mozorro  
eta karroza jaitziera  
egingo dute  
txarangaren  
laguntzagaz

laguntzagaz eta ostean, Taberna  
Ibiltariaren musikagaz kantatu kan-  
tari ibiliko dira kalerik kale: Urar-  
ka, Berrio Otxoa... Iaz arrakasta  
handia izan zuen karroza jaitzie-  
rak eta herriko bazter guztietara  
zabaldu zuten jai giroa.

Musikagaz gozatzeko auke-  
ra ere egongo da egun horretan.  
Oihan Vega DJak musika jarriko  
du plazan 18:45etik aurrera eta  
gauean Bebek kontzertua eskai-  
niko du txosnagunean. Azkenik,  
22:30an Correfoc Disco Death  
kale ikuskizuna ere egongo da  
hirigunean.

**BANAKETAK**  
**MIOTA S.L.**

eva INSALUS KAS PEPSI RAM San Miguel

Miota, 6 48230 ELORRIO Tel.: 94 623 18 92  
miotasl@hotmail.com

**berriozabaleta**  
• Iturgintza • Berokuntza

gremioen koordinaketa jose miguel acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55  
48230 Elorrio (Bizkaia) • berriozabaleta@yahoo.es

**izara**  
Lentzeria eta Dekorazioa

Urarka kalea 3 • Tel.: 94 682 00 53

tel.: 94 658 29 96  
630 64 35 99

• Nizeto Urkizu 14. behea  
• Elorrio (48230) Bizkaia

**NUKIEO**



# Ferixa Nausikoak 2012

**CAFETERIA**  
**IRISTARRI**  
"Enri"  
Tel.: 94 658 31 19 Elorrio (Bizkaia)

**XNR**  
Taberna  
GOSARIAK - PINTXOAK - BOKATAK  
Berriothoa 43, 48230 ELORRIO - TEL.94 658 34 65

**LEJARAZU**  
Jaietan pintxoak  
eta bokatak  
Urarka, 10 - Elorrio - 94 658 33 04

**PARRA**  
taberna  
parra@parrataberna.com www.parrataberna.com

**PORTALEKUA**  
EUSKAL PRESOAK  
PORTALEKURA

**Katxaro**  
Gastro Taberna  
SAGARDOTEGIKO MENUA  
GOSARIAK MERIXENDAK  
BAZKARIAK EGUNERO ZABALIK  
AFARIAK MENU BEREZIAK  
San Fausto kalea, 25 - Elorrio - 94 658 29 67

**Xelai**  
Taberna  
Entsaladak Ranzak  
Arrosak Pizpak  
Otxorikak Otxorikak  
Postreak...  
Nizeto Urkizu, 37-39 | 48230 ELORRIO Bizkaia | T 94 655 02 66





# 100 lagun inguru batuko dira aurtengoan ere Danborradan

Nagusien Danborrada bihar gauean izango da, plazan, eta umeena irailaren 9an

Elorriko Danborradan parte hartzen dutenek prest dauzkate makilak eta danborrak. Bihar izango da Nagusien Danborrada, gaueko 23:00etan, eta aste honetan zehar entseatzeko ibili dira danbor kolpe

guztiak batera emateko. Mila Arroyo antolatzaileak azaldu du ez dakitela seguru zenbatek parte hartuko duten, baina 100 lagunen bueltan ibiliko direla. 70 lagunek astinduko dituzte barril eta dan-

70 lagunek  
astinduko dituzte  
barril eta danborrak

borrak. Laguntzaileak ere gogoratu ditu Arroyok, koilarak eroaten dituztenak edota sukaldariak, esaterako.

Hamar piezatik gorako erreperitorioa joko dutela adierazi du

Arroyok. Plazako ekitaldia ez ezik, kalejira ere egiten dute elkartez elkarre. Arroyoren esanetan, Txantxibiri abestia da jendeak gehien eskatzen diena. Nobedaderik ez, baina azken urteetan estreinatutako pieza batzuk jotzen jarraituko dute: Debako martxa, adibidez. Errepertorioan ez dira faltako Elorriko martxa edota Donostiakoa ere. Musika doinueta ez, baina pausuen koreografian aldaketaren bat egingo ei dute.

Plazako ekitaldia ez  
ezik, kalejira ere  
egiten dute elkartez  
elkarre



## Entseguak, kalean

Kalean egin dituzte entseguak Danborradako parte-hartzaileek. Arroyok dioenez, leku itxian zarata oztipo bihurtzen da. Udak eta eguraldiak entseguetan eragina izaten dute, beraz. Edozelan ere, aurtengo danbor hotza entzungo da Elorriko. Bihar izango da lehenengo saioa, eta irailaren 9an bigarrena. Horretan, umeek irten-go dute plazara, arratsaldeko 17:00etan.

Domekan Euskal Herriko nekazaritza produktuen eta abereen erakusleho bihurtuko da Ferialekua, Abere eta Nekazaritza Azokaren 29. aldian. Abereen artean, Angel Carrasco elorriarrak Espainiako arraza garbiko lau zaldi erakutsiko ditu. Zaldiak afizioagatik dituela dio eta bere helburua ez da eurak saltzea, jakingosea asetzeko erakustea baino. Orain dela hamar urte ere parte hartu zuen azokan eta bisitarien artean ikusmina eragin zuela gogoratu du.

Mendrak auzoko larreetan hazi dituzten zaldiak eta urteak joan ahala estimu handia hartu die. Muntatzeko zaldiak dira denak,

Espainiako arraza garbikoak eta bakoitzak bere izena du: Obispo (hamar urte), Bronco (zortzi), Chileno (bost) eta Gatopardo (hiru). Norbaitek zaldiren bat erosteko interesa erakutsiz gero, eskaintza entzuteko prest dagoela dio, baina printzipioz ez dituela saldu nahi adierazi du.

Borja Alberdi elorriarrak ere zaldiak erakutsiko ditu aurtengoan, baina arabiar arrazakoak, baita gurutzatutako zaldiak ere. Animalia horiez gainera, urtero legez, behi, idi, asto eta bestelako abereak ere batuko ditu azokak, 10:00etatik aurrera.

## Nekazarien 70 postu

Nekazaritza postuei dagokionez, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroatik etorritako 70 postu banatuko dira Ferialekuan. Ogia, gazta, bitxiak, pilota... Denetarik produktuak egongo dira salgai. Nobedadeetako bat, andoaindar batzuek salduko duten hortxata zukua izango da.

Mendrak auzoko  
larreetan hazi dituzten  
zaldiak eta estimu  
handia hartu die

# Elorriar batek arrazadun lau zaldi erakutsiko ditu azokan

Behi, asto, behor eta gainerako abereen artean Angel Carrascok Espainiako arraza garbiko zaldiak erakutsiko ditu Ferialekuan



**KAMIKOPIAK**  
KOPISTEGIA

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak  
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala

Berriotxo kalea 9 • Tel.-Faxa 94 623 14 31 • 48230 ELORRIO  
• [kamikopiak@kamikopiak.com](mailto:kamikopiak@kamikopiak.com)

**Erika 20**  
arkitektura

Silvia Urrutxi Arkarazo

Tel 94 623 18 47  
Errekakale 20, 2. A - Elorrio



# Tortilla txapelketa antolatu dute aurten Koadrilen Egunerako

Aldatsekuan 09:00etan hasiko dira koadrilei bazkarirako mahaiak eta aulkiak banatzen



Koadrila gazteenak lehenengoz, jubilatuen elkarteak urteroko euren mahai luzeagaz, batzuk betiko txokoa hartuta, su txiki eta handiak nonahi... Adin guztietako koadrilek eta euren kamiseta koloretzuek paisaia berezia sortzen dute urtero Koadrilen Egunean. Azken

Azken urteotan  
Elorrioko Udalak  
1.500 aulki  
alokatu izan ditu

Plazan batuta,  
koadrilen arteko  
jokoak hasiko  
dituzte 19:00etan

urteotan 1.500 aulki alokatu izan ditu udalak, eta horiez gainera, udalarenak ere jartzen dituzte. 09:00etan hasiko dira aulkiak eta mahaiak banatzen Aldatsekuan. Astelehena egun osoko jai eguna izango da aurten ere.

Aurten, bazkaritarako ohikoa izaten den paellaz gainera, patata tortillak ere egingo dituzte koadrilek, lehenengoz antolatu duten tortilla txapelketarako. Eguerdiko 14:00ak aldera hasiko dira bazkaltzen, eta ordu hori ipini dute tortillak aurkezteko. Bazkalostean Jon Zabal ilusionista eta mentalistaren saioa edukiko dute Aldatsekuan bertan. 18:00ak inguruan mahaiak batu eta parranda giroan plazara jaisteko momentua izango da. Koadrilen kalejira girotzen txaranga bi ibiliko dira Berriotxo kalean behera; Txarantukada Masaranduba eta Samasiku taldea.

Plazan batuta, koadrilen arteko jokoak hasiko dituzte 19:00etan. Parte hartze handiko jokoak izaten dira urtero; iazkoan, esaterako, 20 taldek parte hartu zuten. Jokoen ostean, dantzarako eta parrandarako aukera egongo da plazan eta txosnetan; plazan, Abiba disko festa edukiko dute iluntzean eta gauean. Txosnagunean, oster, Unsain taldearen erromeriaz gozatu ahaliko dute iluntzean eta afalostean ere.



## Rock kontzertuak nagusi: Durangaldekoak eta Bebe

Irailaren 8an txosnagunean ariko da Extremadurako abeslaria

Jaietako lehenengo kontzertuak Elorrioko bertoko talde bik eskainiko dituzte gaur; Namek Planet eta Gorantz Erori proiektua izango dira txosnetan, 23:00etatik aurrera.

Namek Planetek etxean joko du iaz Banden Lehia irabazi eta aurten BBK Live jaialdian kontzertua eskaintzeko aukera eduki eta gero. Maketa bat eta *Paradisua* izeneko diskoa grabatu ditu laukoteak. Euren ostean, iazko udazkenean lehen pausuak eman zituen Gorantz Erori proiektua izango da oholtzan, Elorrio eta Durangoko musikariek.

Durangaldeko musika entzuteko hurrengo aukera bigarren

barikuan izango da, gaztetxean. Ghertzainak taldea –Hertzainak talde oiharen kantak jotzen dituen eta The Mockers hirukote durangarra ariko dira.

### ‘Un pokito de rocanrol’

Txosnaguneko bigarren asteburuko gonbidatua Bebe abeslaria izango da. Extremadurakoa da baina Lekeitiotik etorriko da, bi egun arinago kostako herrian joko baitu. Zapatuan ariko da Elorrion Bebe, 23:00etan hasita. *Un pokito de rocanrol* bere disko berrieko kantak ekarriko ditu.

Bestelako estiloak ere egongo dira. Gaur gaztetxean Summum Art eta Kogollo Party Krew

dj egongo dira, musika eta ikusentzunezko efektuak nahasten. Bihar, The Last Strength eta Bellator taldeak. Urarkan bihar Tony Ronal abeslaria eta guateke festa edukiko dituzte. Arriolan antzerki musikala eta tangoa eskainiko dituzte.

Gaur Namek Planet  
eta Gorantz Erori  
proiektua izango dira  
txosnetan,  
23:00etatik aurrera

**AZKARGI** GARBIKETAK  
Bulego eta Industri mantenimendua - Obra osteko garbiketa - Kristalizatuak...  
Goietan, 10 - 2 esk. - ELORRIO - Tel.: 94 682 09 91

**zaindu** albaitaritza  
ALBAITARITZA KLINIKA  
www.zaindu.net  
Ibarra, 8 - 48230 Elorrio  
Tel.: 94 682 04 94

**Galdaragintza**  
Forja artistikoa  
Enpresen mantentzea  
**EZAGUN, S.L.**  
Berriozabalbeitia, 10  
Tel.: 94 658 45 47 - Fax: 94 658 28 88  
48230 ELORRIO (Bizkaia)  
ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net  
Eugenio Sánchez  
Agustín Urien



# "Parte-hartzea islatu gura izan dut; fauna osoa"

Leyre Balerdi da (38 urte, Elorrio) aurtengo kartel lehiaketaren irabazlea, urteetan finalista izan ostean

**Herriko kale bazterretan zure kartela ikusita, bereziak izango dira aurtengo Ferixa Nausikoak.**

Norberak egindako lana bazter guztietan ikusita... Sentsazio arraroa sortu zait bai, baita poza ere!

**Zorionak emango zizkizuten. Hala ere, kritikarik heldu zaizu?**

Kritika onak dira jaso ditudanak. Inguruan gustatu izan zaie egindako kartela. Kalean ere asko zoriondu naute.

**Atarian geratu izan zara azken urteetan, hala ere, aurtengo zurea izan da kartel aukeratua...**

Lau-bost urtean aurkeztu izan naiz Elorrioko jaietako kartel lehiaketara. Jakin izan dut finalisten artean geratu izan naizela, baina, aurtengo lortu dut saria lehenengo biderrez. Urteetan atarian geratu naiz, eta ohitura bihurtuta zegoela-eta, ez dut pentsatu irabaziko nuenik, baina, lortu dut irabaztea eta sorpresa pozgarria hartu dut.

**Zer erakutsi gura izan duzu jaietarako kartelagaz, hainbat zapatilagaz?**

Idea iaz sortu zitzaidan, baina, ez nuen garatzeko aukerarik eduki. Azkenean, bide berri batetik jo eta beste kartel bat aurkeztu nuen. Aurtengo iazko ideia hari heldu diot: Elorrio ezagutzeko sortutako ibilbidearen ezagueria hartu dut abiapuntu, baldosa. Ikusi dut askok egiten dutela ibilbide hori, bertokoek zein kanpotik datozenek. Eta uste dut herria ezagutzeko gonbitea egiteko modua dela zelanbait. Horren inguruko oinek, guztion parte hartzea islatu gura izan dut; herriko fauna osoa. Jaietara gonbidatzeko modua da.

**Askok kostatu zaizu?**

Denbora faltagatik albo batera utzi nuen iaz, eta aurtengo denbora gehiagorik hartu dut. Egia da kartelak aurkezteko data txarto apuntatu nuela agendan, eta denboraz justu ibili naizela berriro ere, baina...

**Zelan bizi dituzu zuk Elorrioko Ferixa Nausikoak?**

Batez ere herrikoak batzen garen egun horiek ditut nik gustuko, asteburuan batzen den

arren jende gehien. Koadrilen Eguna, adibidez, egun polita da; giro berezia sortzen da. Beste puntu bat, beste kolore bat dute egun horiek, eta modu berezian bizi ohi ditut.

**Parte hartzen duzu jaietan...**

Gauegun, egunez parte hartzen dut gehienbat. Lagun artean pasatzen ditut Ferixa Nausikoak, ahal den neurrian, behintzat. Gauez ere irtetzen dut, baina, iruditzen zait gauez jaiguztiak direla berdina, Durango, Elorrio... Gazteago nintzenean gehiago irtetzen nuen gauez eta gero egunean zehar... Lo!

"Inguruan gustatu izan zaie egindako kartela. Kalean ere asko zoriondu naute"

**500 euroko saria irabazi duzu. Zatiren bat gordeko duzu Ferixa Nausikoetarako...**

(Barrez) Faktura asko dago ordaintzeko, baina, zatiren bat... Egia esan ez dut pentsatu zertan erabiliko dudana diru hori.

**Zer da jaietan gehien gustatzen zaizuna?**

Nekazaritza feriak eta abelburu erakusketak bisitari asko batzen du; baita danborrak ere. Baina, aurretik aipatu moduan, Koadrilen Eguna, Sukalki Jaia. Horiek gustatzen zaizkit gehien.

**Eta zeozer kenduko zenuke jai egitarautik horretarako aukerarik emanez gero?**

Kendu? Ez! Gustuen arabera koloreak ere! Denontzako zeozer egon behar da jaietan. Ahal izanez gero ekitaldiak gehituko nituzke! Baina, gaur egun bizi dugu egoeragaz...

**Zelan gonbidatuko zenituzke elorriarrak zein kanpotik etorri daitezkeen bisitariak Ferixa Nausikoetan parte hartzera?**

Barrutik sortu behar den gauza da hori. Izan



ere, bakoitzak bere erara bizi ditu jaiak. Animatu, animatu gura nuke jendea Ferixa Nausikoetan parte hartzera. Hainbat ekitaldi batu dituzte prestatutako jai egitarauan eta bizi dugun egoera ekonomiko honetan alaitasun pixkat ez da txarto etortzen. Jai giroa ez da faltako!

**Elorriotik kanpo, beste herri batzuetako kartel lehiaketetan parte hartu izan duzu inoiz?**

Ez. Gogoz nago, baina, ez dut inoiz parte hartu. Denbora ere behar da horretarako, baina, orain litekeena da saiatzea.

**Ferixa Nausikoak iragartzeko zuk aurkeztutako kartela aukeratu izanak horretara animatuko zintuen...**

Egia esan bai! Beste herri batzuetan eraturako lehiaketetan ere parte hartzera animatzen zaitu horrelako sari bat lortzek.

"Batez ere herrikoak batzen garen egun horiek ditut gustuko, asteburuan batu arren jende gehien"

"Beste herri batzuetan eraturako lehiaketetan ere parte hartzera animatzen zaitu horrelako sari bat lortzek"



# XNR

**gosariak-pintxoak-bokatak**

**BERRIO-OTXOA, 43 - 48230 ELORRIO**

**TEL.: 94 658 34 65**



## AISIALDIA &gt;

auzorik auzo



Gurutzeberriko guruztokia.



Eliza osteko teiletegia.



## Historia eta ondasun aberatsa du San Agustinek, milurteko elizaren magalean

Elorrioko Aramiño, Beriozabaleta eta Arauneta auzoetan zehar doazen elizbideek San Agustinen bat egiten dute. Orain pasialeku direnak, hilen kanposanturako prozesiorako bideak ziren antzina

**S**an Agustin auzoa ezagutu beharreko tokia da. Auzoko jaiak amaitu berri-tan, merezi du jaietako zapia kendu eta mendiko oinetakoak jantzita berriro bueltatzea. Historia aberatsa du, bitxikeriaz betea, eta oraindik zutik dauden eraikin historikoei zein dagoeneko desagertuta daudenei esker, mendeetan zehar eraikitako izaerari eusten dio, bizi-bizirik.

San Agustin Etxebarria eliza gotikoa, 1500 urte ingurukoa, aurretik toki berean zegoen eliza erromanikoaren gainean eraiki zuten. Eliza erromaniko hori 1053an fundatu zuten Munio eta Leguncia senar-emazteek, Durangoko kondeak eurak. Munio eta Legunciarengorpu momifikatuak elizari lotuta dagoen San Martin eta Santa Marina kaperan ikusi ahal dira baita gaur egun ere.


Aipamen berezia merezi dute Aramiño, Beriozabaleta eta Arauneta auzoak zeharkatuz elizan amaitzen diren elizbideek ere. Sasoi batean, auzoetan hildakoak eliza ostean dagoen kanposantura eroateko bideak ziren: "Elizbideek bizitza heriotzagaz lotzen zuten", azaldu du Rikardo Ajuria Olazar auzo elkarteko kideak. Abadeak elizara heldu aurretik dagoen Gurutzeberri (XVII. mende amaie-

rakoa) guruztokian itxaroten zion auzoetatik zetorren prozesioari eta denek batera osatzen zituzten elizara arteko azken metroak. Gaur egun, funtzio erlijiosoa galduta, aipatutako auzoak oinez ezagutzeko ibilbide ezin aproposagoa osatzen dute elizbideek.

San Agustinen erlijioari lotu bako beste hainbat ondasun ere badaude, elizaren atzealdean dagoen teiletegia esaterako. Oraindik zutik jarraitzen duten harrizko zutabeek eta horma zatiek teiletegiaren balio historikoari eusten diote. Elizaren jabetza-

koa zen teiletegia jabetza pribatura pasatu zen Karlistaden ostean (XIX. mendean) Juan Alvarez de Mendizabalen desamortizazio prozesuari jarraituta.

San Agustinen zegoen ola zaharrak ere merezi ditu lerro batzuk, dagoeneko haren arrastorik ez dagoen arren. Orain hogeitau inguru bota zuten pasealekua egiteko. 1484koak dira ola zaharreko lehenengo planoak. Hain zuzen, ola zaharra bota zenean sortu zuten Olazar elkarteak, auzoko ondasunen alde lan egiteko helburuagaz.



San Agustin Etxebarria eliza gotikoa, aurretik toki berean zegoen eliza erromanikoaren gainean eraiki zuten

Auzoak oinez ezagutzeko ibilbide ezin aproposagoa osatzen dute elizbideek

Oraindik zutik dauden harrizko zutabeek teiletegiaren balio historikoari eusten diote



## IRITZIA &gt;

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

## Bizkaiko udalen egoera ekonomikoa. Prentsa oharra

*El País* egunkariak gaur (abuztuak 14) argitaratu duen albisteari erantzun nahi diogu prentsa ohar honen bidez. Aipatutako albisteak honako titularra ageri du *País Vasco* edizio-ko 3. orrian: “*Catorce Ayuntamientos han solicitado ya auxilio financiero a las Diputaciones*”. Segidan, Bizkaian halako eskaerarik ez dela izan zehazten du artikuloak, nahiz eta Aldunditik mailegu berria eskatzeko aukera eskaini den.

Bizkaiko Bilduk argitu nahi du Bizkaian badirela egoera ekonomiko larrian dauden udaletxeak eta Aldundiak aurkeztu duen programak eskaerarik jaso ez badu, ez dela udalek laguntzarik behar ez dutelako, baizik eta Aldundiak proposatzen dituen neurriak ez dielako udal horien beharrei erantzuten. Izan ere, Aldundiaren ‘laguntza’ planak herriak epe ertainera gehiago zorpetzeko arrisku handia du.

Gipuzkoko Aldundiaren kasuan, eman diren maileguak Foru Funtzari zor zaion dirua bueltatzeko izan dira eta ez dira izan udaletxeak kinka larritik libratzeko urgentziazko neurriak. Aldiz, Bizkaian, hainbat herri dira eguneroko funtzionamenduari eusteko zailtasunak dituztenak eta Aldundiak ezarri dituen baldintzak ez dira, inolaz ere, egoerari buelta emateko irtenbide egokia. Kontuan izan behar da Aldundiaren programak finantza erakundeen ordainketak beste edozein ordainketaren gainetik lehenesten dituela. Hau da, lehenengo bankuei ordaindu behar zaie eta ondoren, hornitzaile, langile eta gainontzekoei. Neurriak arrisku handia du, udalen egoera zein den ikusita, oso litekeena baita udaletxeen esfortzua bankuen

mailegu berria ordaintzera bideratzea soilik eta aurreko zorrak bere horretan jarraitzea.

Halako neurriak hartu aurretik, beharrezkoa da Bizkaiko Aldundiak herrietako egoeraren inguruko azterketa sakona egitea, herrietako ordezkariekin batera, mahai berean eserita. Gipuzkoako eta Arabako Aldundiek bilerak deitu dituzte, alkateekin batu dira eta Rajoyk Madriletik agindu dituen murrizketak nola eragingo dieten azaldu zaie udal ardura-dunei.

Aldiz, Bizkaian ez da halakorik egiteko asmorik agertu eta Bilduren udal karguek prentsa bidez jaso dugu soilik Bilbao jaunaren berri.

Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiari egoeraren larriaz jabetu dadila eta herriei batera egiazko laguntza plana osa deza- la eskatzen diogu.

Bizkaiko Bilduk uste du Aldundiak bere egin behar duela kiebra egoeran dauden udalen zorra. Bilbao jaunari eta bere lan taldeari ez zaio betebeharrak ezezaguna egingo, aurretik ere gauzatu izan den neurria baita. Ez da ahaztu behar, gainera, herrietako finantza egoeraren kontrola Aldundiari dagokiola eta honek arduragabe jokatu duela hainbat udal modu jasangaitzean zorpetu direnean edo maileguak baldintza onartezinetan eskatu dituztenean.

Bizkaiko Bildu

## ■ Sei hankako mahaia

Aitziber  
Irigoras  
EAJ

## Euskadi berpiztu

Argitu da, behingoz, uda honetako sekreturik sakratuena. Azkenean Lopez Lehendakariak iragarri dau zein egunetan emongo dogun gure bozka Hauteskunde Autonomikoetan, eta durangarrontzat oso seinalatua dan egunean jarri ditu: urriaren 21ean, Sanfaustoen amaiera egunean. Data horretan amaituko al dira baita be Jaurilaritza honen arduragabeke-riaren jai etengabeak? Euren irudia administratzeko gobernuak bukatuko al da? Hala bedi. Edozelan be, PSEren estilo baldarrari jarraiki, oraingo honetan barriro be lanak nahierara egin dabez. Hilabeteak emon dabez Hauteskundeak aurreratuko ez zirela aldarrikatzen, eta, beste hainbes- tetan bezala, ukatze hori profezia bihurtu da. Ohituta gagoz. Aurre-ko batean PPgaz gobernuak lortze-ko akordiorik egingo ez ebela zin egin eben, eta dagoeneko hiru urte pasa dira... Esaten dabena, nork sinistu orain? Euren berbak ez dauka inolako seriotasunik, daukaten fidagarritasun maila hutsaren hurrengoa da.

Aldamenean Ezker Abertzalearen marka barria be izango dogu. Pozgarria da Hauteskunde honetan joera politiko guztiek askatasunez eta berdintasunean parte hartu ahal izatea. Horrek ez dau esan nahi hainbat urtetan bizi izandakoa ahaztuko dogu- nik. Gure printzipio demokratikoei sendo eutsi deusegunok, era guz- tietako indarkeriak salatu dogu- nok, bake-bidean konpromiso zin- toa daukagunok, urteetan zehar irainak eta erasoak jaso ditugunok ez dogu onartuko demokrazian jaiobarriak direnen inolako tuto- retzarik. Ehun urtetik gorako ibil- bide demokratiko eta baketsua daukagu jaraunspen gisara, eta sustraiok zuhaitza sendo orekatzen dabe.

Urriaren 21ean aukeran izan- go doguz lau joera nagusi. Bate- tik, PPren atzeraeragin autonomi- koa, 35 urteko ibilbidea atzera egi- teko. Bestetik, PSEren irudi- administrazioa eta berba-hutsen proposamena. Hirugarren, jeltza- leei irabaztea helburu bakarra daukan Ezker Abertzalea. Eta gure Aberri bakarra, Euskadi, aurrera ateratzeko proiektua daukan EAJ. Jaun-andreok, zein izango da zuen aukera?

## Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta  
astekaria@anboto.org  
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN  
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean  
sinatuta eta ANBOTOn irizpideak jarraituz  
zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

## Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko abuztuaren 31  
10. urtea - 469 zk.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

## Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,  
Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Ekaitz Goienetxea.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako,  
Zaldua Fuertes.



@anbotokirola

# KIROLAK >

## Indartsuen artean muturra sartu dezakeela erakutsi du Kulturalak

Ligako estreinako neurketan husna berdindu du Beasainen aurka, itxura ona emanda



Durangoko Kulturalako aurtengo taldea, uztail amaieran Tabiran egindako aurkezpenean.

Husna berdindu arren, ligako estreinako partidua nota onagaz gainditu zuen Kulturalak joan zen asteburuan. Hirugarren mailan, *play off* postuetarako borrokan egon behar lukeen Beasainek bisitatu zuen Tabira. Mikel Agirregomezkorta entrenatzailea oso gustura agertu da bere mutilek erakutsitako agaz: "Baloia jabetza geurea

**"Denboraldian jarraitu beharreko bidea zein den ikusteko balio izan zigun partiduak"**

izan zen eta partiduko pisua erangenuen. Jokalarien portaera ere bikaina izan zen. Denboraldian zehar jarraitu beharreko bidea zein den ikusteko balio izan zigun partiduak". Baina bakarrik aurkitu dio taldeari: "Azken metroetan presakaegi jokatu genuen eta ezin izan genuen golik sartu".

Agirregomezkortak bigarren denboraldia izango du Kulturala

entrenatzen eta, iaz legez, onen artean borrokatzea da taldearen helburua: "Play off postuetan edo asko jota haietatik partidu batera edo bira mantentzen saiatuko gara. Badakigu hirugarren mailan talde boteretsu asko daudena, baina gu lanerako prest gaude".

Sei jokalaria fitxatu dituzte helburu horiek gauzatzeko. Oro

har, zelaiko posturik gehienak indartzen saiatu dira. Taldea iaz baino "apurtxo bat konpentsatuagoa da", Agirregomezkortaren ustez. Beasainean kontrako partiduan titular jokatu zuten aurtengo fitxaketa bik: Jon Varela eta Eneko Casado. Asis Peña eta Iñigo Endemaño bigarren zatian zelairatu ziren.

**Harrobiarengan konfiantza**  
Kulturalaren gazte mailako sei jokalarik nagusiekin egin dute aurrendenboraldia eta horietako bost lehenengo taldean geratu dira: Jon Galarza eta Beñat Arruabarrena defentsak, Lander

**"Minutuak izango dituzte gazteek mailara egiten direnean"**

Olaetxea etra Beñat Alberdi erdilaria, eta Mikel Abad aurrelaria. Joseba Valladares erdilaria lurretakon jokatu du aurreten Kulturalak utzita.

Agirregomezkortak argi utzi du gazteei minutuak emateko prest dagoela: "Kontuan hartzen ditugu. Gazteenetik Hirugarren mailara salto handia dago, baina ondo entrenatzen ari dira. Mailara egokitzen direnean minutuak izango dituzte. Lehen taldean geratu dira, ez beste aukerarik ez zegoelako, benetan balio dutela uste dugulako baino".


Bihar Getxo talde igoberriaren aurka jokatu dute ligako bigarren neurketa. Ez da mailako areririk gaitzenetakoa, baina Kulturalako entrenatzailea ez da fidatzen: "Ehuneko ehuna eman ezik edonoren kontra galdu daiteke. Guk badakigu gure zeregin zein den". ■ J. D.

### Fitxaketak >



- Mikel Arribas  
- 23 urte  
- Atezaina

Leioa taldeetik etorri da. Urte bian bigarren atezaina izan den Unai Rodriguez lurretakora joan da. Taldeak irteera eman dio jokatu dezan. Hutsune hori betetzeko fitxatu dute Mikel Arribas. Azken urteetan atezain titularra izan den Garikoitz Basaurirekin lehiatu du postua 23 urteko gazteak.



- Jon Varela  
- 23 urte  
- Defentsa

Eibar B taldeetik ekarri dute. Eskuin hegalean edo zentral joka dezake. Iñigo Carro Amorebieta taldera joan da eta hark utzitako hutsunea betetzeko ardura izango du. Jokalari gaztea da oraindik eta Carroren antzerako dohaiak ditu. Hegaletik taldeari erasoan laguntzeko ahalmena ere badu.



- Gorka Martinez  
- 30 urte  
- Defentsa

Jokalari hau izan da taldera batzen azkena. Orain aste bi fitxatu dute Lemoa taldeetik. Zentral jokatzeko du. Talde askotan aritu da, baita Euskal Herrikan kanpora ere, eta esperientzia handia du. Esperientzia hori oso baliagarria izan daiteke Kulturala bezalako talde gaztean. Ondo moldatzen da aireko jokoa.



- Asis Peña  
- 24 urte  
- Erdilaria

Eibar B taldean aritu zen iaz eta Beasainen ere jokatu du. Postu baten baino gehiagotan jokatzeko ahalmena du, baina berez erdilaria da eta Ander Pinilligaz partekatu beharko du zelai erdiko postua. Oraindik gaztea izanagatik, esperientzia zabala du eta Bigarren B mailan Sestao taldeagaz jokatu du.



- Eneko Casado  
- 28 urte  
- Erdilaria

Leioa taldeetik dator. Eraso begira jokatzeko eskuin hegalean. Txikia, azkarra eta abila da. Gainera jaurtiketa ona du. Eskuin hegala da bere ohiko postua, baina ezkerretik jokatzeko kapaz ere bada. Ez da jokalaria garaia, baina buruz erremate ona du, hein handi batean jauzi handia duelako.



- Iñigo Endemaño  
- 19 urte  
- Aurrelaria

Gernika taldeetik ekarri dute. Joseba Garcia aurrelaria airez indartsua bada eta baloia babes-teko ahalmena badu, Endemaño azkartasuna eta bizitasuna ditu ezaugarri nagusi. Aurrelari biak bata bestearen osagarri izan daitezke. Gainera, oso gaztea denez, oraindik garapenerako tarte da.



# Film batean agertuko dira sokatiralariak, Taiwanen

Soktirari buruzko film bat grabatuko dute Asiako irla handian eta Abadiño Sokatira Taldeko hamar tiralari grabaketan egongo dira



Irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an izango dituzte grabaketa saioak. G.Larrinaga

**A**badiño Sokatira Taldeko hamar tiralari Taiwanera (Asia) joango dira irailaren 28an, Taipein sokatirari buruz grabatuko duten film batean parte hartzeko. Badaiotz taldeko (Gasteiz) sokatiralariak ere gonbidatu dituzte.

Hiru grabaketa egun izango dituzte: irailaren 30a eta urriaren 1a eta 2a. Filmaren ekoizleak Edu Mendizabal abadiñarren entrenatzaileari esan diotenez, emakumezko sokatiralari baten istorioa izango da kontakizunaren ardatza. Filmaren une batean, Txinako selekzioak munduko talde onenaren aurka (Euskal Herriko selekzioa) neurtuko ditu indarrak final batean, eta eszena

horien grabaketan parte hartuko dute Abadiño tiralariak.

Otsailean, Eskoziako munduko txapelketan eman zieten lehenengoz filmaren berri Txinako selekzioako ordezkariak: "Esan ziguten, baina kontua hortxe geratu zenez ez genion kasu handirik egin", gogoratu du Mendizabalek. Uztailan Txinako hiru tiralari Euskal Herrira etorri ziren hamabost egunez, Abadi-

ñoiko Sokatira Taldeagaz entrenamendu saioak egitera. Orduan, berriro aipatu zieten filmaren asmoa. Abuztu hasieran filmaren ekoizleak deitu zieten eta asmoa gorpuztu egin zuten.

Mendizabalek onartu duenez, ez dakite zehatz zer eskatuko dieten. "Gu badaezpada sasoiko joango gara". Denboraldi aurreko prestaketa hilabetez aurreratu dute eta dagoeneko hainbat entrenamendu saio egin dituzte abuztuan.

Txinako sokatira selekzioa munduko indartsuenetakoa da. Eskozian munduko txapeldun izan ziren emakumeak, eta gizonek Abadiñoren kontra galdu zuten. ■ J. D.

**Filmak emakumezko sokatiralari baten istorioa kontatuko du**

## Auzotarrekin ospatu zuen brontzea Undak

2012ko abuztua sekula ez du ahaztuko Maider Undak. Londresko Olinpiar Jokoetan brontzeko domina irabazi zuen borroka librean. Euskal Herrira bueltan omenaldi beroa jaso zuen Oletan. Lore sorta eta peluxezko ardia oparitu zizkieten, besteak beste. Aurreskua eta Xabier Amurizaren bertsoak ere eskaini zizkieten.



## ADITUAREN TXOKOA

**Unai Zamalloa**  
Saskibaloi entrenatzailea



## Denboraldi hasieran

Amaitzen ari da abuztua eta gure talde gehientsuenak buru belarri sartuta daude aurrendenboraldian. Talde guztiek orain bizi dituztenak momentu garrantzitsuak dira. Prestaketa on batek denboraldi luzea modu hobean igarotzeko indarra ematen du. Momentu gogorak izaten dira jokalarientzat baina ezinbestekoak dira prestaketa fisiko eta taktiko hauek. Denboraldian zehar taldea izango denaren oinarri bilakatuko dira.

Tabirakoko mutilen talde nagusia, aurtien ere, Lehenengo mailan izango da eta iazko denboraldia ez errepikatzeko aldaketa sakonak egin dituzte taldean: entrenatzailearengandik hasita —Tomas de Castro bueltatu da taldea zuzentzera—, jokalar berrietara. Horien kasuan, garrantzitsuenak Oinatz Menikaren itzulera eta Zornotzatik datozen Carlos Diego hegalekoa eta Forto pibota. Aurtengo taldea askoz gogorragoa da eta joan zen urtekoak ez luke errepikatu behar. Taldeak itxura ona du, baina lana gogoz egin beharko dute.

Nesken taldean ez da aldaketa handirik egongo eta, joan den urtean denboraldi ona burutu ondoren, aurtien goiko postuetan egoteko taldea dela konfirmatu nahiko dute. Aurreko denboraldiko taldea oinarritzat hartuta, gazte mailatik datozen jokalarien laguntza eta indarra izango dute lagun.

Zornotza taldea goitik behera aldatu da eta oraindik ez dauka taldea itxita eta pibot eta hegaleko baten bila dabilta. Momentuz, Carreto, Zorrozu, Duque, Arteaga, Anasagasti Izkarari, Iker Salazar basea, Mario Tobar pibota eta Toni Lorenzo hegalekoa gehitu zaizkie.

## Austrian, txanda bitik bat ezin amaitu Urienek

Europako Radical Masters txapelketako bosgarren lasterketan, Austrian, maila itzela eskaini arren, ez da oso gustor itzuli Euskal Herrira Igor Urien pilotua. Bi txanda puntuagarrietako lehenengoan, euripean eta zirkuitu bustian, erakustaldia eskaini zuen abadiñarrak eta bigarren sailkatu zen. Bigarren txandan, ordea, matxura mekaniko batek lasterketatik kanpora utzi zuen. Ondorioz, Europako Radical Masters txapelketa irabazteko aukerak murriztu zaizkio. Txapelketa amaitzeko lasterketa bi geratzen dira: Donington eta Kalatuniako lasterketak, urrian eta azaroan.

Austriatik "zapora gazi-gozaogaz" bueltatu dela adierazi du Urienek: "Bigarren txandan, dena ondo zihoala ematen zuenean, seigarren martxa hondatu zen eta ezin izan genuen konpondu. Dena dela, pozik nago asteburuko errendimenduagaz". ■ J. D.

## Erlojupekoan ez du parekorik Oiarbidek

Lourdes Oiarbide arabarrak (Beste Alde-Rent a Car-Orue taldekoa) erlojupeko Espainiako txapelketa irabazi eta urrezko domina jantzi du gazteen mailan. Kantabrian (Espainia) izan zen txapelketa, joan zen asteburuan, eta minutu batetik gorako aldea atera zion bigarren sailkatuari. Ziortza Isasi elorriarra (Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio) seigarren sailkatu zen. Txirrindulari biak Euskadiko selekzioagaz aritu ziren.

Oiarbidek brontzeko domina ere irabazi zuen errepideko lasterketan. Eider Merino taldekidea geratu zen bigarren eta Sheyla Gutierrez errioxarrak jantzi zuen urrea.

Espainiako txapelketa irabazita, erlojupekoetan lehiatzeko dohai bereziak dituela erakutsi du beste behin Oiarbidek. Uztailan Euskadiko txapelketa irabazi zuen gazteetan, eta berea izan zen maila guztietako denborarik onena, nagusienak ere hobetuz. ■ J. D.

Hemen agertu gura baduzu  
**deitu!**  
94 621 79 02

**Arriike**  
Liburudenda  
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

**Betikoak**  
flexografia  
ofizinarako zigiluak  
fotolitoak  
Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA  
Tel.: 94 620 22 41

**URTXINTXA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK  
Aukera ezazu hemen zure erregalua  
Andra Mari kalea, 9 DURANGO  
Tel.: 94 681 50 17




## mendi ibilbideak

# AISIALDIA >



Durango M.T.B.



## Iurretako bazterrak erakusten ditu kofradien bideak

Oso ibilbide erakargarria da mendi bizikletan ibiltzea maite dutenentzat. Oiz eta Mugarra aldetik ibiltzeko aukera eskaintzen du.

**D**urango hasi arren, batez ere Iurretako ezagutzeko ibilbidea da kofradiena. Iurretako auzoak sei kofradiatan banatzen dira, antzinako antolaketa eredu hartuta. Beraz, Durangotik Iurretara jo eta Goiuriara igo behar da hasteko. 5,5 kilometro egin da, baso aldera eroaten duen bidea hartu. Oizeko bidea jarraitu eta Maumeko atarira irteten den bidea hartzea eskatzen du ibilbideak. Hor Laixiar zelairako pista seinalizatua agertzen da. Zelai hori gune esanguratsua da Iurretan, kofradietako kideek urtero euren eguna ospatzen dutelako bertan, iraileko bigarren domekan.

Laixiarretik BI-3341 errepide-ra joan behar da. Gorabehera asko-dun bidea topatuko dute txirrindulariek. Bakixa auzora ailegatzean, baserriak ezkerretara utzi eta asfaltozko errepidea hartu behar da. Muniketarako bidean agertu arte eragin pedalei. Helburua 634 errepidera irtetea izango da. Bernabeiti auzoraino jarraitu eta gorantza bide tekniko dago. Gibelatik gora Marmoladarantz jo, baina Landa Ederrara heldu aurretik Santa Luziarantz hartu.

BI-4331 bidea agertzean Oroz-keta eta Santa Apolonia auzoak pasatzen dira behehera. Durango-rako bidea azkenetan egongo da.

## ZER IKUSI...



Laixiar zelaia



Landa Ederra

### DISTANTZIA

40 km

### IRAUPENA

4 ordu

### IGOERA METATUA

1.036 m

### ZAILTASUNA

Oso gogorra

laguntzaileak



babesleak







# argazki lehiaketa



## oinarriak

1. Parte-hartzaileak: 16 urtetik gorakoak

2. Gaia: "12 hile, 12 herri"

Durangaldeko 12 herrien argazkiekin osatu gura dugu egutegia hile bakoitzean herri bakoitzekoa jartzeko.

3. Berezitasunak: argazkiak kamera digital batekin egin beharko dira eta ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- JPG formatuan bidaliko dira.

- Argazki bakoitzak 4000x2800 pixel izan behar ditu

Lan originalak aurkeztu behar dira eta ezingo dira izan beste argazki-lehiaketa batzuetan saritutakoak. Argazkiei ukituak egin ahal izango zaizkie, baina ezingo da gehitu edo kendu euren jatorrizko osaera aldatzen duen elementurik.

Irabazleei eskatu ahal izango zaie argazkia egiteko erabili zuten makina eta argazki originala aurkeztu dezatela, argazkiaren benetakotasuna egiaztatzeko.

4. Argazkiak aurkezteko epea: argazkiak aurkezteko epea **2012ko urriaren 1ean** amaitzen da. Epe horren barruan, noiznahi aurkeztu daitezke.

Behin lanak aurkeztu ondoren ezingo dira lehiaketatik erretiratu

5. Lanak aurkezteko modua: parte-hartzaile bakoitzak Durangaldeko herri bakoitzeko argazki bana aurkeztu beharko du (Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar). Guztira 12. Argazkiak e-mailez edo CD batean aurkeztu daitezke, argazkilariaren datu guztiekin:

Argazki bakoitzaren izena. Argazkilariaren izen abizenak. NAN zenbakia. Helbidea. Adina.

Bidaltzeko helbidea: [astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)

Anboto astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

**SARIA:** 500 euro (argazki onenari)

**informazio gehiago:**  
**[anboto.org](http://anboto.org)**





# EDERTASUN GIDA

## ILEAPAINDEGIAK



### Ile sikuentzako xaboi naturalak

Urteak pasa ahala, guruin edo glandulek gero eta olio gutxiago botatzen dute. Buru-azala sikatzen hasten da eta, horren ondorioz, ilea ere bai. Ilea tindatzeko prozesuek, permanenteek edota lehorgailuek ere gehiago sikatzea eragin ahal dute. Hori guztia dela-eta, komenigarria izaten da ileari distira emateko tratamenduak lantzea. Hainbat produktu daude, baina etxean bertan egindako produktu naturalak ere kontuan hartu ahal ditugu.

Egin beharreko lehenengo urratsa xaboi natural leunak erabiltzea dela diote adituek. Xaboi mota horiek ez dute ilearen keratina kaltetuko, eta gainera umeltzen lagunduko dute.

### Garbitu eta gerokoak

Horrez gain, ilea garbitu eta segituan ez askatzea gomendatzen dute. Lehortzeko unean, kontu handiz eta era leun batean egitea komeni ei da. Lehorgailua erabiltzekotan, distantzia apur bat eman behar zaio.

### Elikaduraren eragina

Eguneroko elikadurak ere ba omen du zerikusia ilearen egoeran. Horregatik, elikagai hauek jatea gomendatzen dute adituek: ogi eta arroz integralak, fruta freskoak, barazkiak, gorringoa eta gibela.



## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**Ana Camarero**  
• estetika zentroa •

**LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA**

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

**Nerea** Masaje eta Estetika Zentroa

**Nerea Mallabiarrena • Merche Garcia**  
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAKO masaje indiarak antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

**synthesis** Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango





# Montevideo etorbideko obragaz, CONAMA saria irabazteko hautagai da Durango

Etorbidean asfalto ekologikoa ipini dutenetik, airearen kutsadura murriztu egin dela adierazten dute Azterlanen datuek



**D**urangoko Udalak Espainiako CONAMA (Congreso Nacional del Medio Ambiente) lehiaketan parte hartuko du aurtan. Montevideo etorbidean egin-dako obra aurkeztu du lehiaketara. Bidean asfalto ekologikoa ipini dute, eta kutsadura atmosferikoa murriztea lortu dute modu horretan. Hain zuzen ere, ibilgailuek isurtzen duten nitrogeno oxidoaren maila %50 gutxitu dela egiaztatu dute. Ecobide izena dauka egitasmoak, eta Espainiako beste udalerrri txiki zein ertain batzuen ideiekin lehiatzeko aurkeztu du udalak. Azaroaren 26tik 30era egingo duten kongresuan jakinaraziko dute irabazlea zein den. Herritarrek botoa emateko aukera daukate web honetan: [www.premioconama.org](http://www.premioconama.org).

Durangoko Udalak badauka esperientzia lehiaketan. Iker Ocejak, Garapen Jasangarrirako Batzordeko buruak azaldu du zergatik parte hartzen duten lehiaketan: "Bost urte daramatzagu parte hartzen kongresu honetan, beti ere jasangarritasunaren alorrean Durangoko bizi kalitatea hobetu nahian; aurrerantzean ere zentzu honetan lan egiten jarraituko dugu".

Montevideo obra EAEn aitzindaria dela diote aurkezpen-txostenean; Madril-en edota Parisen probatu dute, esaterako. Udalak Azterlanen laguntza eduki du ideia garatzeko eta osteko emaitzak ikertzeko. Antzeko ebaluaziorik inon ez dute egin oraindik; urte eta erdiko ebaluazioa egin dute Durangon.

## Eguzkiagaz, ahalmena handitu

Asfalto ekologikoak titanio oxidoa dauka. Osagai horrek, gai kutsakorak atmosfera botatzea oztopatzen du. Hau da, autoetako ihes-hodiek isuritako kutsadura xurgatzeko ahalmena dauka asfaltoak. Eguzkiagaz ahalmen hori handitu egiten da, gainera, emaitzen arabera.

## Trafiko handiko kalea

Montevideo etorbidea ibilgailuen trafiko handiko kalea da. Horregatik erabaki zuen udalak Ecobide proiektuari ekitea kalea berriro urbanizatzerakoan. Urte eta erdiko balantzearen ostean, asfaltoa egoera onean dagoela ere egiaztatu dute Azterlaneko teknikariek.

Ibilgailuek isurtzen duten nitrogeno oxidoaren maila %50 gutxitu dela egiaztatu dute

Asfalto ekologikoak autoetako ihes-hodiek isuritako kutsadura xurgatzeko ahalmena dauka



# EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

## 12.000 BAIETZ!

**anboto**  
komunikabideak



2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIAKek emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan

HARPIDEDUN EGITEKO

**3**

AUKERA DITUZU:

**1**

anboto@anboto.org  
helbidera idatzi.

**2**

946816558  
telefonora deitu.

**3**

Kupoia bete eta  
bidali Anbotora.

**ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA**



Izena ..... Abizenak .....

Telefonoa ..... E-posta .....

Helbidea..... Herria.....



# INMOBILIARIAK >



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
- 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatzeko.
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta gutziz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- EZKURDI: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

### BERRIZ

- 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta ganbara.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

## LUR SAILAK SALGAI

### IURRETA

- 2.000 m2-ko lursaila salgai. Leku zoragarria. Sarbide ona.
- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruitarbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

## BASERRIAK SALGAI

### BERRIZ

- MURGOITOn kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazal turismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
- OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak. 174.500€-tik aurrera.
- ETXEBIZITZAK SALGAI
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxo.
- ANDRA MARI: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun.
- ANTISO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTISO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatzeko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- INTXAURRONGO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentza-ko garajea eta trastelekua.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa. Lursailarekin.
- KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. ( Guztiz berriztuta ).
- KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. ( Guztiz barritzuta eta erdi jantzia ).
- KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- KURUTZIAGA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Despentsa handia. Ganbara.
- LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- MARTXOAREN 8ª: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta 2 komun. Terraza handia.
- MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta despentsa. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SAN INAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SAN FAUSTO: Halla, sukalde.jangela, 2 logela eta komuna.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
- UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.



**Inmobiliaria del Duranguésado**  
ASKATASUN ETORBIDEA, 10 - 48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 681 66 66  
www.inmoduranguésado.com  
inmoduranguésado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- MADALENA: 96 m2. Aukera. Saltzeko premia berehalako lekualdatzeagatik. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara.
- MARTXOAREN 8KO: Azken etxebizitza estreinatze-ko, behe-rapen handiagaz obrak likidatzeko. 2 logela. Garaje itxia.
- MARTXOAREN 8KO: beheko solairua 90m2-ko terrazarekin. 2 logela. Garaje itxia.
- MARTXOAREN 8KO: 93 m2. 3 logela eta 2 komun. Osorik kanpora ematen du. Garaje itxia.
- EZKURDI: Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 301.979 € + bez. Garajea eta ganbara.
- ZABALE: 99m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Balkoia eta garajea. Trastelekua aukeran.
- HERRIKO GUDARIEN: 140 m2. 3 logela. 3 terraza. 2 komun. Garajea. Azkeneko solairua. Eguzkitsua. Ikuspegi politak.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra, garajea, ganbara 185.000€ + bez
- 2 logela garajea eta ganbarekin 233.000€ + bez
- 3 logela garajea eta ganbarekin 350.000€ + bez
- ASKATASUN ETORBIDEA: 108m2. Erdi berria.
- 3 logela, egongela, sukaldea guztiz jantzia, 2 komun, garajea eta ganbara. Balkoi oso handia etxebizitza guztian zehar.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEOA. ETXE OSOAK KANPORA EMATEN DU. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 83 m2. 3 logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Erdi berria.
- SAN ROKE: 79m2. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 2 balkoiarekin. Eguzki ugari eta ikuspegiekin. Berriztua. Berehala bizitzera joateko.
- ALLUITZ-ASKATASUN: 76m2. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- TABIRA: erdi berria. 50m2. Logela, egongela, sukalde jantzia, komuna, balkoia eta ganbara.
- TABIRA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekia.
- MADALENA: erdi berria. 50 m2. Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eskegitokia.
- PLATERUEN PLAZA: 97 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea, trastelekua eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du.
- ANDRA MARI: 180 m2. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- LANDAKO – TXIBITENA: 93 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea.
- ZUMALAKARREGI-EZKURDI: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.
- EZKURDI: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia.
- MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- MURUETA TORRE: 91 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du.
- LANDAKO: 80 m2. 2 logela, egongela balkoiarekin, 2 komun, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- LANDAKO: 134 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoi handia. Ganbara. Garajea aukeran.
- FRANTZISKO IBARRA: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- FRANTZISKO IBARRA: 105 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea aukeran.
- SASIKOA: 85 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Balkoia. Ikuspegi politak. Eguzkitsua.
- ARKOTZA: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.
- KURUTZIAGA: 80 m2. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi handia. Ikuspegi ederrak.



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11  
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. 186.000€
- ERMODO: erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- TABIRA: erdi berria. Apartamentua. 10 m2-ko terraza. Garaje itxia.
- ABADIÑO: 83 m2. Erdi berria. 2 logela, 2 komun, egongela balkoiarekin eta eskegitokia. 210.000€.
- ZABALE: 3 logela, 2 komun eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- JESUITAK: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. Berriztatua.
- IURRETA: 3 logela, egongela eta sukalde handia. Terraza. Igogailua. Berogailua. 174.300€.
- IURRETA: 3 logela eta egongela. Balkoia. 66.000€.
- IURRETA: berria estreinatzeko. 2 logela, 2 komun, egongela handia eta sukaldea eskegitokiarekin. Garajea aukeran. 199.000€.
- ZEHARMENDIETA: 3 logela. 2. solairua. Berogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. 155.000€.
- EZKURDI: 175 m2. 4 logela eta 4 komun. Trastelekua. Bizitzen sartzeko moduan. Ikuspegiekin.
- MIKELDI: 100 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara. 210.400€.
- ONITURRI: Ezkurdi. Erdi berria. 80 m2. Eguzkitsua. 1. mailako materialak. Ganbara eta 2 autorentzako garajea.
- SAN ROKE: 80m2. 3 logela. 2 Terraza. Ganbara. Ikuspegi polita. Eguzkitsua.
- MATIENA: 3 logela, egongela eta sukaldea. Berriztua. 170.980€.
- DANTZARI: 3 logela. Bizitzen sartzeko moduan. Alokairuan; 600€ erosteko aukerarekin.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 90m2. 3 logela. 2 bainugela. Ganbara eta garajea.
- MURUETATORRE: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea aukeran. 220.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 2 logela eta 2 komun. Terraza. Eguzkitsua. 216.000€.
- SAN INAZIO: 3 logela. 2 bainugela. Ganbara. Garajea. Terraza. Eguzkitsua. 270.000
- IURRETA: 90 m2. 3 logela eta egongela handia. Berogailua eta igogailua. Ganbara. 205.000€.
- KOMENTUKALEA: apartamentua. Argitsua.
- FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 90 m2. 3 logela, sukalde-jangela eta egongela. Terraza.
- ERRETENTXU: etxebizitza handia. Garajea. Berriztatua. Eguzkitsua.
- URIBARRI: 102 m2. 4 logela. Eguzkitsua. Ikuspegiak. 179.700€.
- MONTEBIDEO: 80 m2. 3 logela eta egongela. Igogailua. Ganbara. 210.300€.
- ERDIALDEAN: Maristak ingurua. 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- FRANZISKO IBARRA: 6 urteko aintzinatasuna. 2 logela. Ganbara. Garajea. 252.400€.
- MAÑARIA: 110 m2. 3 logela eta egongela handia. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- ALLUITZ: erdi berria. 2 logela. Ganbara eta garajea.
- HERRIKO GUDARIEN: AZKENEKO etxebizitza. 3 logela, eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.
- EZKURDI: 70 m2. Etxebizitza edo bulegoa. 180.000€. Alokairuan. 400€
- SASIKOA: erdi berria. 90 m2. 3 logela eta eskegitokia. Balkoia. 52 m2-ko terraza. Eguzkitsua.
- ARTEKALE: Berria. 80 m2. 2 logela. Polita.
- MADALENA: 2 logelako atikoa. Terraza.
- LANDAKO: 5ª solairua. 90 m2. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Polita. Altuera ona. 312.500€.
- DURANGO: txaleta. 400 m2. Garajea. Lorategia.
- BERRIZ: Abadiño-Gerediaga. 275 m2. 3 solairu. 8.800 m2-ko lursaila eta ortuarekin.

## ERAIKUNTZA BERRIA

- ZALDIBAR: % 100 finantziazioa, 512 /hileko kuota. 2 eta 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. Prezioak; 175.000€ eta 207.000€ + BEZ
- IBAIZABAL: 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua barne. 247.000€-tik aurrera.
- MAÑARIA: Etxebizitzak estreinatzeko. 189.500€.







INMOBILIARIA

ETXELAN

NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO

94 655 03 58 - [info@inmobiliariaetxelan.com](mailto:info@inmobiliariaetxelan.com)

[www.inmobiliariaetxelan.com](http://www.inmobiliariaetxelan.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ELORRIO

- Erref. 356: 53 m2-ko apartamentua. Logela, komuna eta sukalde-egongela. 190.000€.
- Erref. 345: 76 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Balkoia. Terraza. 210.000€. Prezio negoziagarria.
- Erref. 360: 120 m2-ko pisua. 5 logela eta komuna. Trastelekua duplex bihurtzeko aukerarekin. Eguzkit-sua. 230.000€. Negoziagarria.
- Erref. 255: 74 m2-ko pisua. 2 logela, 2 komun eta egongela-sukaldea. Lorategia. Prezio negoziagarria.
- Erref. 406: 65 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 200.000€.
- Erref. 405: 75 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Eraikuntza osoa salgai berritatzeko.
- Lokalak salgai toki paregabea, dimentsioak; 121 m2, 101m2, 62,5 m2 eta 105 m2.
- Apartamentu berriak. 60 m2. 2 logela eta komuna. 165.000€.
- Erref. 246: 130 m2-ko pisua. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea. Kontsultatu.
- Labakua kalean garajea salgai; 22.500€.
- 140 m2-ko lokala salgai. Taberna jartzeko proiektuarekin.
- Lursailak: Unifamiliarra eta bifamiliarra eraikitzeko aukera.

### DURANGO

- Erref. 362: 40 m2-ko apartamentua. Logela, komuna, sukaldea eta egongela. 185.000€.
- Erref. 361: Lokal komertziala alokagai. 80 m2. 360€/hilean.

### ABADIÑO

- Erref. 372: 83 m2-ko pisua. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 246.000€.
- Erref. 325: 90 m2-ko pisua. 3 logela, 2komun, egongela eta sukaldea. Kontsultatu.
- Etxebizitza berriak. 1,2 eta 3 logelakoak. 161.400€ -tik gora.
- Txaleta. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea eta egongela. Berria dago. 570.000€.

### BERRIZ

- Erref. 393: 80 m2-ko pisua. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. 162.000€.
- Erref. 373: 68 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Aukera paregabea.
- Erref. 401: 65 m2-ko pisu erdi berria. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 204.000€.
- Lursailak: 4 lursail salgai eraikitzeko aukerarekin.
- 60 m2. 2 logela, komuna eta egongela berria. 155.000€.

### ZALDIBAR

- Erref. 391: 70 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 140.000€.
- Erref. 392: 75 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 150.000€.
- 15 m2-ko garaje irekia. 12.500€.
- Erref. 278: 90 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 165.000€.
- 17 m2-ko garaje itxia. 21.000€.
- Erref. 387: 95 m2-ko lokala alokairuan. 400€.
- Erosteak aukerarekin, prezio interesgarria.
- Erref. 390: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Garajea. 162.000€.

## ALOKAIRUAN

- ELORRIO: 70 m2-ko bulego berria. Komuna. 390€.
- ELORRIO: 60 m2-ko pisua. 2 logela eta 2 komun. Garajea. Negoziagarria.
- ELORRIO: 3 logela eta komuna. Altzariekin. 550€.
- ELORRIO: 120 m2-ko duplexa. 3 logela eta 2 komun. 600€.
- ELORRIO: 70 m2. 2 logela eta komuna. Negoziagarria.
- ATXONDO: Baserria alokairuan. 1000€.
- ELORRIO: Baserria alokairuan. 950€.

Sartu gure webgunean: [www.inmobiliariaetxelan.com](http://www.inmobiliariaetxelan.com)

anboto

iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Interneten eta paperean, doan:

Erregistratu [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgu-nean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org). Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta:

Iragarki laburretatik bereztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

### Higiezinak ETXEBIZITZAK SALDU

**Bolibar.** Etxe zaharra salgai bolibarren 34m2 x 3. Teilatu berria eta proiektuarekin. Hiru gela eta 40m2-ko terraza. Hortu txiki bat. 150.000 euro. Tel.:660-358067

**Abadiño.** Pisua salgai Matienan, kultur etxe aurrean. Altxariz hornitua. Bizitza sartzeko prest. 3 logela, bainua. 27 m2-ko garaje itxia alokatzeko aukera. Ikustera etorri konpromiso gabe. Tel.: 615 73 85 52

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berritua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel:647-777392.

**Durango.** Sasikoa kalean. 3 logela, saloi-jangela handia, sukaldea eta bainua. Bi balkoi, kamarotea eta garajea. Prezio paregabea. Tel.:679 38 23 69.

**Elorrio.** Elorriion etxebizitza salgai. Eraikuntza berria, erdigunean kokatua, igogailua, hiru logela, bi bainugela, sukalde ekipatua, bi hormako-armairu eta trastelekua. 75m2. 230.000euro. Garajea aukeran. Tel.:634 45 72 01

**Garai.** Oarbeaskoa baserria salgai.10.000 m2-ko lursaila. Garaiko san migel auzoa, 6. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m2ko baratza, frutalak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetza kontsulta, jatetxeak eta bus geltokitik 150 metrotara. Durangotik 10 minutura. Ap-8 autopistatik 5 minutara. Bifamiliarra egiteko aukera. Telefonoa:639833489. [jo.amantegi@gmail.com](mailto:jo.amantegi@gmail.com).

**Iurreta.** Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 66.000 euro. Tel.:685 72 80 42.

**Otxandio.** Apartamentu jantzia salgai trastelekurekin. Igogailua. Tel.:675-717283.

### ERRENTAN EMAN

**Berriz.** 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Guztiz jantzia. Animalia-rik ez. Tel.:663 39 75 88

**Durango.** Durangon, erdigunean kokatuta eta guztiz ekipatutako apartamentua errentan. Tel.:670-488497

**Elorrio.** Elorriion, Nizeto Urkizu kalean etxea alokagai. Sukaldea, egongela, komuna, bi logela altxariz hornitua eta berritatuak, eta ganbara handi batekin. 550euro. Tel.:645 73 54 42

**Elorrio.** Elorriion etxebizitza alokagai. Eraikuntza berria, erdigunean, igogailua, bi logela, bi bainugela eta trastelekua. 600euro. Tel.:634 45 72 01

### ERRENTAN HARTU

**Elorrio.** Elorriion pisu baten bila nabil alokatzeko, altzariekin eta berogailuarekin. Tel.:94 658 2191

### OPORRETAKE ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

**Oropesa del mar (Castello).** Marina dorren 4-6 pertsonentzako apartamentu berria alokagai. Udan eta urte osoan zehar. Aste bat, hamabostaldia edo hilabete baterako. Itsasora begira, hondartzatik 150 metrotara. Egongela, 2 logela, komuna, sukaldea, terraza handia. Garajea. Igerileku handia eta umeentzako txintxaunak. Leku lasaia. Ez dira animaliak onartzen. Telefonoa:670 214 924. Marijo

**Torreveja (Alacant).** Torrevejan bungalow bat alokatzen dut. 3 logela, egongela terrazagaz, 60 m2-ko solariuma, urbanizazio pribatua, eremu berdeekin eta igerilekurekin. Tel.:615-779622

**Bastida.** Oporretako pisua alokatzen dut pisinarekin. Torre -otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabetea alokatzen da. Intere-

